1919tik | 2.581 zenbakia | 2017/12/31 | 3,90 € | argia.eus

ARGIA

ERBESTEAREN ETA KARTZELAREN GAINETIK

INDEPENDENTISMOA GARAILE

Botere mediatikoaren babesarekin Ciutadansen pilatu da boto unionista

CUP ahulduta, orain ezkerra zer?

9 778402 139093 02581

Izotz Pista Usurbilen!!!

Pista de Hielo!

Askatasun Plazan abenduak 22tik urtarrilaren 7ra

Taldeen erreserba eta informazio gehiagorako:
635 204 816

ORDUTEGIA:
goizez: 11:00- 13:00
arratsaldez: 17:00-20:00

SARRERAK:
Hurbilagoko establezimenduetan:
1,50€
izotz pistan bertan: 3€

Usurbilgo Udala

hurbilago
Usurbilgo Merkatari eta Ostalarien Elkartea

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

SAIZAR
Sagardoa · Sidra Natural

ARGIA

2.581 zenbakia | 2017/12/31

PANORAMA

4 Asteko argazkia
6-9 Aktualitatea
7 Fauna publikoa
10 Net Hurbil: 2017, Rutenio 106 ezagutu genuen urtea

IRITZIAK

17 Estitxu Garai Artetxe
18 Imanol Alvarez
19 Iñaki Barcena Hinojal
Itziar Bardaji Goikoetxea
20 Katixa Dolhare-Zaldunbide

'MICE' diskoa aurkezten ari da Miren Narbaiza kantari eibartarra, bakarkako ibilbideari ekin berritan. (ARGAZKIA: MIKEL LARRATXE)

AZALA: DANI BLANCO

38 DENBORAREN MAKINA
40 BIZI BARATZEA
42 ARGIA KOMUNITATEA
48 KULTUR KRITIKA
50 ZUZENEKO EMANALDIA
51 DENBORA-PASAK
52 ARGI-KONTRA: RUTH LAZKOZ
54 BERANDUEGI

SAKONEAN

12 | María Victoria Sánchez-Bravo: "Ez dut nahi nire neba José Luisen izena garbitu besterik" / Miel A. Elustondo
22 | Kataluniako hauteskundeak: Garaipenaren ostean, kudeaketa eta erresistentzia doinuak / Xabier Letona
28 | Donostiako Ospitaleko errehabilitazio unitatean, arreta euskaraz bermatzeko zirkuitua prest / Jon Ander de la Hoz
30 | "Benetan sinetsi behar dugu ikasteko beste modu batek emaitzak ematen dituela" / Mikel Garcia Idiakez
32 | Deustuko emakumeen trainerua, txanpa bikaina hartuta / Ainhoa Ortega Bretos
34 | *Vandenboschia speciosa* iratzea, gure erreketako altxor ezkutua / Iñaki Sanz-Azkue
37 | Infografia: Apartheida da Trumpek Israelgo hiriburu izendatu duena / Visualizing Palestine
44 | Miren Narbaiza: "Talde inpertsonal eta plastifikatu asko dago" / Xalba Ramirez
46 | Östlund / Aronofsky / Lanthimos: Axolagabe uztea ez da zuzendari hauen kontua / Gaizka Izagirre

OHARRA: DATORREN ASTEAN EZ DA ARGIA KALERATUKO. URTARRILAREN 14AN ITZULIKO GARA.

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produkzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.
Web garapena: Asier Iturralde.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
Interneten: www.argia.eus
Lege gordailua: SS 837-2012.
ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel.: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus
Harpidetzak: harpide@argia.eus
Erredakzioa: kazeta@argia.eus
ARGIA KIDETZA:
Harpidetzari lotuta egon beharrean, kidetza ARGIAren proiektua indartzera dago lotuta. Kideek, egokitzat duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

OLATUKOOP EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

CONGRESO

PANORAMA

Kalea gurea da

17 orduko debatearen ondoren eta 8 botoko aldearekin, Argentinako Diputatuen Ganberak pentsio erreforma onartu du: alegia, pentsioak %13 murriztuko dituzte gutxienez, eta ezgaitasunengatiko laguntzak ere txikituko dituzte. Biolentzia parlamentarioari indartsu erantzion diote kalean: protesta handiak, lapiko-jotzeak eta greba orokorra. Herrialdeko demokraziaren 34 urteetan izan den gatazkarik biolentoenak bizi izan omen dituzte, gas negar-eragileak, gomazko balak eta harriak tarteko.

Argazkia: Sub.Coop

“Hara! Beste enpresa bat Kataluniatik hanka egiten... Oraingoan PP...”

@xabini

“Hauteskundeen ondoriorik tristeena da Kataluniako zati bat dagoela (155 blokearen bozkatzaileak) beste zatia jipoitzearen alde”

@BatallaCarles

“Obreroak Ciudadanosi masiboki botoa ematen. Edo ezjakinak, edo masokistak”

@BatallaCarles

“Nire kontua izango da baina Ciudadanosek nabarmen irabazten dituen hauteskunde batzuen balorazio positiboa egitea ez zait ateratzen”

@aguaprado

“Total, elkarbizitzen ikasi behar dugula”

@leon_marga

IREKIA / EUSKO JAURLARITZA

4.000 tortura kasu baino gehiago jasotzen dituen txostena

Andoni Mikelarena
@andonimik

1960-2014 artean Euskal Herrian izandako tortura kasuen inguruko txostena aurkeztu dute EHUko Kriminologiarako Euskal Institutuak eta Eusko Jaurlaritzak. Ikerketa zuzendu duten Laura Pego zuzenbidean doktoreak eta Pako Etxeberria auzitegietako medikuak eman dituzte datuak: aipatu urteetan Euskal Herrian 4.113 tortura kasu izan zirela dokumentatu dute. Aurreneko aldiz instituzio publiko batek Espainiako Estatuak torturatu izan duela onartu du eta gainera zifrak eman ditu komisarietan gertatutako tortura kasuez. 1960an frankismoaren garaian hasi eta trantsizioaren ondorengo garaietan izandako kasuak jaso dituzte.

4.113 kasuetatik, 1.792tan Espainiako Polizia izan da torturatzailea, 1.785etan Guardia Zibila eta 336tan Ertzaintza. Hain zuzen, EAEko poliziako ErNE sindikatuak gogor kritikatu du txostenaren edukia, “torturen salaketetan bakarrik” oinarritu eta epai judiziala kontuan ez izateagatik. Etxeberriak eta Pegok, berriz, adierazi dute txostenaren sinesgarritasuna %95ekoa dela, eta jasotako 202 salaketa NBEren protokoloen araberako peritu-azterketa gainditu dutela.

Espainia jomugan

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiako Estatua sei kasutan gutxienez zigortu ondoren dator txostena. 2010. urtetik Estrasburgoko Auzitegiak behin eta berriz Espainia jo-puntuan jarri du tortura kasuak ez dituelako ikertu.

“EHZ birdefinitzeko eta dinamikari arnas berria emateko momentua iritsi dela uste dugu”

EHZ FESTIBALAREN ANTOLATZAILEAK

Euskal Herria Zuzenean festibala ez da egingo 2018an. Datorren urtea trantsizioa egiteko baliatu eta 2019an “proiektu berria eta berritzailea” jarri nahi dute martxan. “Oraindik konpondu ez diren zailtasun ekonomikoek indar asko eskatu digute, ondorioz proiektuari berari buruz laguntzaile guztiekin batera eraman beharreko eztabaidak zein gogoetak ezin izan ditugu behar bezala burutu. EHZ birdefinitzeko eta dinamikari arnas berri bat emateko momentua iritsi dela uste dugu”. **2017-12-21**

FAUNA PUBLIKOA

“Gertatu ohi da benetako ezkerrik ez dagoenean, ezkerrak bukatzen duela eskuinari botoa ematen”

Gorka Maneiro, UPyDko legebiltzarkide ohia Kataluniako hauteskundeez (Twitter)

Sobiet Maneiro

Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Dezenteko ultzera eragin behar du gauza bat asmatzeak, inbentoak arrakastarik ez edukitzeak, atzetik beste norbait etortzeak, gauza ia iguala aurkezteak eta, zurekin ez bezala, pitxitxi guztia txaloka hasteak eskuak magenta koloreko jartzeraino. UPyDren historia da, neofalangismo espainiarraren Nikola Tesla dira: 78ko Erregimenaren ardatzetako bat zen bipartidismo trinkoari ura sartzen hasi zitzaionean, PPSOEren alternatiba gisa agertu ziren eszenan. Erregimenik nahi ez zutenei, erregimen eta erdi.

Seventy eight bizimoduaren hipertrofia hartan juntatu ziren Fernando Savater eta Rosa Díez; Carlos Martinez Gorriaranen txioekin dibertitu ginen; eta, nola ahaztu Alvaro Pomboren mitin ero haiek –“U-PEY-DE! U-PEY-DE!” errepikatzen dit oraindik, tarteka, buruko grabagailuak–. Baina gero hauteskundeen testak etorri ziren eta, noizbait beldurgarriki bozkatuak izan ziren arren –birritan gainditu zuten milioi bateko langa Espainian–, denborak Ciudadanos bihurtu du erreferentzia nagusi Jose Antonio “Riveraren Lehengusu” anfetaminikoak eskatzen dituen hauteslearentzat.

Hori ulertu zutenek partiduz aldatu zuten. Maneiro, Titanic-eko musikarien espirituz, alderdian geratu zen. Duela gutxi arte: Ahora plataforma aurkeztu du aurten, “zentro-ezkerreko” ideien laborategia izan gura duen zerbait, batzuen ustez alderdi berri baten enbrioia izan daitekeena. Eta zer nahi duzue esatea, intrigatuta nago Kataluniako hauteskundeei buruz esan duenarekin: UPyDren magenta itsusi hori kendu eta behingoz bandera gorri batean bilduta ikusiko dugu tokaio Maneiro, *Internazionala* kantari? Gauza sinesgaitzagoak gertatu dira. Asko-asko ez, baina. n

ANALISIA

Elektroien autobideak

Unai Brea
@unaibrea
ARGAZKIA: GUEÑES-ITSASO AUTOPISTA ELEKTRIKOAREN AURKAKO KOORDINADORA

Ez elektroia bezain azkar, baina abiada handian doaz Euskal Herrian argindarraren garraiorako bi azpiegitura handi eraikitzeko planak. Batak, Gueñes (Bizkaia) eta Itsaso (Gipuzkoa) lotuko dituen 72 kilometroko goi tentsioko lineak, oraindik orain lortu du Espainiako Gobernuaren baimena, zeharkatuko dituen udalen gehiengoa aurka azaldu den arren.

Beste proiektua handinahiagoa da, edo modako terminologian nahiago baduzue, faraonikoagoa, gure begiei ezkutatuko badiete ere: Bizkaiko Gatika herri txikiaren eta Bordele iparraldean dagoen Cubnezais-en arteko kable laukoitza, 370 kilometroko luzerakoa, horietatik 280 itsaspekoak eta hamar euskal lurretan, zehazkiago lurpean. Alegazioak aurkezteko fasean dago, baina harritzekoa litzateke egitasmoak aurrera ez egitea. 2025ean indarrean egotea da asmoa.

Herrialdeen arteko konexio elektrikoak indartzeak hainbat abantaila dakar, zabaldu dute proiektuon sustatzaileek, erakunde publikoak barne: energia trukaketa erraztea beharrizana dagoenean –horrela, esaterako, eskualde batek une batean itzalaldia jasatea eragotziko litzateke–, eta iturri berriztagarrietatik datorren ekoizpenari aterabide gehiago ematea, eguraldiaren apetari lotuta egonik alferrik gal baitaiteke bestela.

Bestelako ikuspegia dute autobide elektriko direlakoen aurka han-hemenka antolatuz joan diren mugimendu herritarrek. Goi tentsioko linea erraldoiek paisaiari eta ekosistemari egiten dioten kaltea gogorarazi, eta hurbil bizi diren herritarren osasunerako arriskua azpimarratu dute, oso azpiegitura garestiak direla ahaztu gabe.

Kontua da ea prezioa ordaintzea merezi ote duen. Alegia, benetakoak ote diren elektrizitatea urrunera garraiatzeko azpiegituren alde ematen diren argudioak, edo besterik gabe negozio handi bat besterik ez ote den hau guztiau, Red Eléctrica de España konpainiako EAEko ordezkariak berriki elkarrizketa batean aitortu bezala. Horren aurrean, proiektuon kontra daudenek herritarren egiazko beharretara egokitutako energia ekoizpen eredu deszentralizatua aldarrikatzen dute, garraio zirkuitu laburrez hornitua. Argindarraren portzentaje handi bat bidean galtzea eragotziko luke horrek, ingurumenari kalte txikiagoa egiteaz gain.

EKONOMIAREN TALAIAN

Soldata igoera miserableak

Juan Mari Arregi

Gobernatzen dutenek soldata onak dituzte, dietak, luxuzko pentsioak... Eta hara non datoz orain esatera, krisi urteen ondoren soldatak mugitu behar direla kontsumoa hobetzeko. Lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) 2018an %4 igotzea proposatu dute; orain 706 euroan dago. Hau da, 28 euro gehiago! Espainiako Estatuko milaka langilek –Hego Euskal Herrikoak ere bai– "bizi" beharko dute 736 euro horiekin. Pentsioak, laugarren urtez jarraian, %0,25 igoko dira, beraz milioika pentsionistek hilean bizpahiru euro gehiago jasoko dute. Eta hauteskunde orokorrak datozenez, PPren Gobernuak "2019 eta 2020rako igoera garrantzitsuak" iragarri ditu.

Hori da dagoena. Gobernatzen dutenek eta gobernuaren atzean daudenek (bankuak, multinazional handiak, IBEX-eko enpresak...) soldata eta mozkin milioidunak pilatzen dituzte, eta lotsarik gabe onartzen dituzte besteoi soldata eta pentsioak igotzeko kondartxo horiek. Eta hori horrela da, funtsean euren burua saltzen duten eta gobernutik jasotzen dituzten subentzioekin oso eskertuta dauden sindikatu batzuk daudelako. CCOO eta UGT negoziatzen ari dira patronalarekin eta Espainiako Gobernuarekin, eta diotenez LGSa 886 eurora igotzea eskatuko dute, asko balitz gisan! Eta Gobernuak bere proposamenari eusten badio, orduan zer?

Bai Espainiako Gobernuko kideek, bai patronalak, bankuek, multinazionalek eta enpresa handiek, hala nola liberatu sindikalek, urtebete –bai, bakarrik urtebete– pasa beharko lukete soldata miserable horrekin, 736 euro gainduko ez dituen LGSarekin. Kapitalismoak bidea libre dauka eta ez ezker politikoak ezta sindikatuek ere ez dute ezer egiten aurre egiteko. Sistemarekin paktatzen dute, eta horrela doakigu.

ASKEKINTZA

“San Tomas eguneko animalien sarraskia” salatu dute

DONOSTIA. San Tomas egunean, Donostiako Plaza Berrian Askekintza talde animalistako hamabi kide Ursula txerria sartu duten kaiola blokatzen aritu ziren desobedientzia zibilez, goizean goiz joan eta bertan sartuta. 30 minutuz egon ziren, harik eta Udaltzaingoak arrastaka atera zituen arte. “Txerriak, errespetua merezi duten norbanakoak dira. Injustua da, norbanako bat bere borondatearen kontra gizendu, objetu bat balitz bezala erakutsi, eta azkenik, txerri gehiago izateko hil arte esplotatzea”, adierazi dute.

Porno Eskola itxiko dute, talde erlijioso bat tarteko

Hala Bedi
@halabedi

Guraso talde erlijioso batek salaketa batekin mehatxatu dituela-eta, “txiringitoa ixteko beharra dugu”, adierazi dute Gasteizen azaro bukaeran zabaldu zuten Porno Eskolako kideek. “Hezkuntza sexuala lehen lerroan jartzea lortu dugu”.

Erlijioaren indarra

“Amorru handiz, hau ixtera derrigortuta gaude. Zoritxarrez, erlijioak egun duen indarra oso handia da oraindik. Haserre gaude, irabazi dutelako, nahiz eta guk jakin arrazoia gurea dela”, adierazi dute Eskolako kideek.

Oso harro

“Oso harro amaitu dugu gure ibilbidea. Are gehiago, gure helburua, hein handi batean, lortu dugu: hezkuntza sexuala lehen lerroan jartzea”. Eta honi lotuta, argi dute: “Hezkuntza sexuala ez zaie eskolei interesatzen”.

Helburua

Interneten dagoen informazioa kritikoki eta etikoki eztabaidatuz, heziketa sexualean sakontzea izan dute helburu. Izan ere, “konturatu ginen nerabeek sexuarekin duten lehenengo kontaktua pornoa dela”, diote.

KUDEAKETA PUBLIKOA

114.495

euro gastatu ditu orain arte Eusko Jaurlaritzak, hiru Twitter konturen kudeaketan. Enpresa pribatuak arduratzen dira Eusko Jaurlaritzaren, Ogasun sailburuaren eta Garraio sailburuaren kontuak kudeatzeaz.

90.750

euro urtean gastatzen ditu Eusko Jaurlaritzak Twitterreko kontu ofiziala kudeatzen.

ZERRENDA BAKARRA

Hezkuntzako lan deialdietan hautagaiak zerrenda bakarrean aurkeztearen aurkako lege proposamena onartu du Nafarroako Legebiltzarrak. Elebidunek aukeratu beharko dute euskaraz ala gaztelaniaz egin nahi al duten, eta bi esparruak hautatuz gero, bi azterketa gainditu beharko dituzte.

STOP METROA

Donostiako metro pasantearen lanak geratzeko eskatu dute, 200 bat lagunek kalean egindako protestan. Parte-hartze prozesu bat irekitzeko eskatuz 9.000 sinadura aurkeztu dituztela eta proiektua inposizioa dela diote.

IKEA SUSMOPEAN

Europar Batasunak ikerketa bat abiatu du Ikea altzarien multinazionalaren inguruan. Ustez zergei ihes egiteko egitura bat osatua zuen enpresa suediarrak, Herbehereak, Luxenburgo eta Liechtensteinen.

Agur eta ohore 2017, lurtarrok Rutenio 106 ezagutu genuen urtea

Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Udaberrian ikasi genuen *Torio*, Norvegiako Haldengo zentraletik ihes eginda Europan barreiatu zen kutsagai erradioaktiboaren izena. Udazkenean egokitu zaigu *Rutenio 106* ikasi beharra, baina oraindik inongo agintarik ez du aitortu ez non, ez zein istriputan, ez nori egin dion ihes naturan aurkitu ezin den isotopoak. Ziurrenik Errusiako Maiak faktoriatik egin du eskapo munduan industria nuklearra nola berrantolatzen ari diren erakusten duen pozoiak: ondo ikasi izena.

Pitokeriarik ezdeusenak mundua segundo bakarrean zeharkatu dezakeen garaiotan, egia garrantzitsu bat ezagutzeko hilabete luzez itxarotera kondenatu gaituzte. Irailean gertatu zen ihes erradioaktibo handi bat Europan barrena zabaldu zena eta 100 egun geroago herritarrek ez dakite zehazki zer jazo den. Egia esan, hedabide handien isiltasuna kontutan harturik... gertatu ote da zerbait?

Azaroaren 9an zabaldu zuen oharra IRSN Frantziako Segurtasun Nuklearreko Institutuak –ARGIAk bi egunen buruan bildu zuena– adieraziz urri hasieran Rutenio 106 isotopo erradioaktiboa hauteman zutela Frantzian eta Europako beste zenbait herrialdetan. IRSNek simulagailuz osatutako kartak erakusten zuen balizko istripua Errusian gertatu zela, Ural mendien hegoaldean. Ondorengo asteetan Moskuko agintariek burokrazia sobietarraren estilo nabarmenenean ekin diote gertatuaren ebidentziak tantaka dosifikatzeari, horretarako motibo bat baino gehiago daukatelako, gero ikusiko dugunez.

Errusian inolako istripu atomikorik izan denik ukatuz abiatu ostean, Rosguidromet meteorologi agentziak onartu zuen Txeliabinsk eskualdean Rutenio 106 arrastoak aurkitu zituztela, ohikoak direnak baino 1.000 aldiz neurri handiagoan. Aldiz, munduko korporazio atomiko nagusietakoa den Rossatom konpainia publikoak jarraitu du defenditzen bere ezein instalaziotan ez dela ikusi horrelako isuririk. Moskutik hasi ziren nazioarteko konspirazioak aipatzen ustez gertatu bako isuriaren sorburutzat, aldi berean batzorde bat bidaliz Txeliabinskera... orain arte ezer aurkitu ez omen duena.

Geroago hipotesi bitxiago bat ere zerbitzatu zuten Moskun: agian beste herrialderen baten satelite militarren batek zabalduko zuela erradiazioa espaziotik kontrolik gabe lurreratzean. *Satelitekeria* hau zientzialari errusiarrek berek gezurtatu zuten. Laino erradioaktiboaren inguruko albisteak aski nahasita zeudenean, egiaren hurrengo ataltxoa Yuri Mokrovek erakutsi du.

Txeliabinsk eskualdean II. Mundu Gerratik hona erregai atomikoekin jolas egiten duen Maiak faktoriako zuzendariaren aholkulari izana da Yuri Mokrov. Berak aitortu du abenduaren 13an *webcast* bidez ziurrenik Maiaketik barreiatu dela gai erradioaktiboa. Zehazki, esan du han erregai erabiliak birprozesatzeko egiten dituzten operazioetan Rutenio 106 sortu ohi dela, hori bai, oso kopuru txiki eta kontrolatuetan. Ez da irakurle bizkorregia izan behar ohartzeko Mokroven aitormenak aurreko gezurren leherketa kontrolatu baten itxura daukala.

Tantaka orain arte ikasi dugunarekin, badirudi hondakin nuklearren manipulazio fasean gertatutako istripu batez ari garela. Arrisku nuklearren jarraipena egiten duen Bellona elkarteko zuzendaria den Nils Bøhmer fisikari norvegiarrak esan du rutenioaren ihesa ziurrenik gertatu dela Ozersk hiriko Maiak faktorian. Hondakin nuklearrak gero biltegi batean lurperatzeko beira moduan egonkortzen dituzte eta prozesuaren arriskuetako bat zera da: beiratzeko lanetan Rutenio 106 gas bihurtua eta labeak filtro egokirik eduki ezean kutsagaia airean barrena hedatzea.

60. urteurrena ospatzeko

Halabeharrak nahi izan du Maiakek Europa osora erradiazioak zabaltzea justu leku berean munduko istripu larrienetako bat gertatu eta 60 urtera. 1945ean Sobiet Batasunak AEBen nagusitasun militarrari aurre egiteko eraikia, Maiakeko laborategi nuklearrak 1948an ekoitzi zuen lehen plutonioa, zeinarekin leherrarazi baitzuen Stalinek estreinako bonba atomiko sobietarra.

Faktoriak 1948 eta 1956 artean kutsadura handia eragin zuen ur erradioaktiboak Ob ibaiaren adarra den Tetxara isurita. Inguruan bizi ziren 124.000 pertsonak ibai honetatik hartzen zuten edateko ura eta denbora luzean pairatu zuten erradiazioa. Une batean 7.000 biztanle ebakuatu zituzten, baina aipatzen da orduko 8.000 lagun hilak zirela kutsaduragatik. Siberia mendebaldeko Karatxai aintziran ere bota zituzten hondakinak. 1967ko lehorteak aintzira agortuta, haizeak bi mila kilometro karratutan barrena barreiatu zituen hauts erradioaktiboak.

Hala ere *Kyshtymeko hondamendia* izan zen Maiakek eragindako ikaraga-

Maiak Produkzio Guneak Txeliabinskeko Ozersk hiri inguruan daukan faktoria erraldoiko sala bat, konpaniak Interneten ipinitako argazki bakanetakoan. Langileek beso artikulatuen bidez manipulatzen dituzte zentral nuklearretatik bidalitako erregai erabiliak, leihoetatik ikusten diren labeetan. Erretako uranioaren tratamenduak sorrarazten du, besteren artean, Rutenio 106 isotopoa, berez naturan aurkitu ezin den kutsagarri erradioaktiboa, irailetik urrira bitartean Ozersketik Europa osora zabaldu dena.

rriena. 1957an, erreaktoreen hozte sistemetako batek eztanda egin eta pilatutako erradioaktibitatearen erdia baino gehiago atmosferara isuri zuen. Partikulak zabaldu ziren inguruko 54.000 kilometro karratutan, 220.000 biztanle kutsatuz. Istripu nuklearren eskalan 6. gradua ematen zaio Kyshtymekoari, Fukushima eta Txernobyleko hondamendien ostean inoiz gertatutako handiena. Zenbati eragin ote zien heriotza?

Ez da sekula jakingo, agintariek hori serioski ikertzeko ahaleginik egin ez dutelako. Oso bestela, isiltasunez estali zuten hondamendia, hasteko Sobiet Batasunean bertan. Mendebaldeko agintariek ere isildu zuten, nahiz eta Ozerskeko eztanda CIAk unean bertan hauteman zuen. Gerra Hotzaren erdian arma nuklearren lehia zegoen jokoan hasieran, eta gero zentral nuklearren negozioaren izen ona. 1976an Jaures Medvedev biologo errusiarrak zabaldu zuen Mendebaldean istripuaren berri.

Mende erdi geroago, bertara joateko baimen berezia eskatzen duen Ozersk hirian (90.000 biztanle), Maiak Produkzio Guneak –errusieraz *maiak* itsasargia da– 17.000 langile enplegatzen ditu 90 kilometro karratu osatzen dituzten instalazioetan 2.050 kilometro karratuko eremu debekatuz inguraturik dago. Gaur egun erreaktore atomikoetan erabilitako erregaia tratatu eta betirako lurperatzen dago berezitua.

Tetxa ibaiaren ondoan, urtero 10 milioi metro kubiko ur erradioaktibo pilatzen ditu, mundu osotik ekarritako erregai zahartuen tratatzean sortuak. 2001ean Washingtongo gobernuak oniritzia eman zion Errusiak hondakin nuklearrak inportatzeko asmoari: hamar urtetan 20.000 tona tratatuz 20.000 milioi dolarreko negozioa mugitzeko modua ikusten baitzuen Moskuk. Horrela bihurtu da Errusia Mendebaldeko zentralek gainetik kendu nahi duten zaborra eramateko azpikontrata.

Gainera, indar handiz ari da munduan barrena zentral berriak eraikitzeko lehiaketetan muturra sartzen Rossatom errusiarra, Egipton, Indian edo baita Hungarian ere kontratuak irabaziz. Globalizazioak eten gabe eragiten baititu lanen banaketa berriak mundu mailan, orain zentral atomikoak eraikitzeko eskaintzetan Txina eta Errusia aurkitzen dira sarritan konkurrentzian. Beti ere arriskuz betea den industria nuklearrean, orain azpikontratista errusiarren kalitate estandarrak edukiko ditugu segurtasunean ere. n

María Victoria Sánchez-Bravo

«Ez dut nahi nire neba José Luisen izena garbitu besterik»

María Victoria Sánchez-Bravo Sollak badu iloba bat bost izen dituena: Luisa Ramona Humberta Anjela Juana da. 1975eko irailaren 27an Franco diktadoreak fusilatu zituen bost borrokalarien izenak daramatza neskak. José Luis Sánchez-Bravo Solla fusilatuaren arreba María Victoriak ez du inoiz ahaztuko.

Miel A. Elustondo
ARGAZKIAK: ZALDI ERO

1975eko irailaren 27an Txiki eta Otaegi fusilatu zituztenean fusilatu zituzten José Luis Sánchez-Bravo, Xose Humberto Baena eta Ramón García Sanz.

Trantsizio garaian, dena ezkutuan gordetzea, dena ahaztea erabaki zuten orduko alderdiek, Alderdi Sozialistak, Alderdi Komunistak... eta orain nori erreklamatu behar diot neba hil zidatela? Espainian gertatzen dena lotsamangarria da, ez da inon gertatzen. Horra eskuin muturreko jendea, falangistak, kalera irten eta jendea joka, laidoztatzen, edo hiltzeko mehatxua egiten, Madrilen alkate [Manuela] Carmenari bezala. Eta zigorrik ez. Ez naiz Kataluniaren independentziaren aldekoa, baina ez zait buruan sartzen erreferendumaren antolatzaileak kartzelara sartzea. Aldiz, lapurreta betean ari direnak, jendea jotzen, izuarazten... ez dute zigorrik. Non da justizia? Espainiatik alde egin nahi dut! Sumintzekoa da jendeak behin eta berriz horiexei ematea botoa. Nazkagarria da.

Galiziatik zatoz, Vigon hazi zineten.

Galiziarrak gara amaren aldetik, madrildar jatorrikoa genuen aita. Etxean bigarrena nintzen, hirugarrena zen José Luis, ni baino urte eta erdi gazteago. Ni 18 urterekin ezkondu eta etorri nintzen Murtziara, senarra hemengoa eginda. Artean, Luis, edo Luisiño, institutuan ari zen. Garai hartan ohi zenez, etxean ez zen politikaren gainean hitz egiten. Frankismoa zen. Geroko batean jakin nuen neba politikan sartuta zegoela.

Ezkondu zinen, gurasoen etxea utzi, etxekoekin harremana tartekatu. Urte batzuetara, zuregana jo zuen José Luisek.

Hil aurreko udan. Haurdun zuen emaztegaia eta ezkondu egin nahi zuten. Luis nirekin harremanetan jarri zen, nik Vigora beraren jaiotza-agiria eskatzeko, ezkondu ahal izan zitezen. Ordurako, ihesi zebilen Luis. Vigoko fabrika batean panfletoak banatzea leporatu zioten. Polizia gure etxera etorri baino lehen ihes egin zuen. Ama guztiz jota geratu zen, ez zuen Luisen berririk izan bi urtean. Neba nirekin harremanetan jarri zenean jakin zuen gure amak Luis Madrilen zebilela. Atzetik zebilkion Brigada Politiko Soziala, ez *sí* eta ez *no* tiroa

María Victoria Sánchez-Bravo

1952, Vigo, Galizia

Arte dramatiko irakasle, oraindik orain sartu da erretretan. 18 urte bete eta ezkondu zen Vigotik Murtziara. Ordurako hila zuen aita. "Ez zuen gerokorik ikusi, zorionez", esana du María Victoriak, aitak ez baitzuen bizi izan María Victoriak bizitakoa: José Luis fusilatu zutela. Harrezkero, neba José Luisen eta harekin batera fusilatu zituzten lagunen memoriaren zaindari jardun du María Victoriak. Memoriaren institutu osoa da, bera bakarrik, María Victoria Sánchez-Bravo Solla.

jotzen zizun polizia hura, edo polizia-etxera eraman eta torturatzen zintuena. Hori ez da kontatzen. Ez PSOEk, ez PCEk esaten dute zer gertatzen zen garai hartan.

Neba torturatu zutela ikusi zenuen.

Bertatik bertara. Hebain-hebain egin zuten, odola egiten zuen txizatan, soina belztua zuen, aurpegia desitxuratua. Eta nola liteke tortura haien arduraduna, bizi baita oraindik, kalean libre ibiltzea? Lotsamangarria da. Nirekiko, dena den, PPk bezainbat kulpa dute, edo handiagoa, ezkerreko omen diren alderdiek, dena ezkutuan gorde nahi izan baitute. Ezagutzen dugu Alderdi Popularra, nondik datorren, nora doan, baina ezkerra isilik egotea? Lotsamangarria! Herria engainatzen ari dira.

Ezkondu ondoren, Murtzian, zure etxean izan zenituen Silvia eta Luis, iheslari.

Gure etxe batean bi egun eman zituzten, eta Mazarrón (Murtzia, Espainia) herrira joan ziren gero. Eta [Antonio] Pose guardia zibiletako tenientea hil zutenean Madrilen [1975, abuztuak 17], neba Murtzian zegoen Silviarekin. Nik banuen auto xahar bat, baina ez zebilela eta taxia hartu genuen Luisek, Silviak eta hirurok Murtziatik Mazarrónera joateko. Poseren hilketan parte hartu zuela leporatu ziotenean, taxilariari eskatu nion lekukotasuna emateko, adierazteko nola egun jakin batean eraman gintuen hirurok Murtziatik Mazarrónera. Neba ez zuten hilketaren egile material izateaz akusatu, baina akabatu egin zuten, hala ere. Txikitu egin zuten, eta txikitu egin gintuzten.

Familia, esan nahi duzu.

Gure familia txikitu zuten. Beste neba batek, Manuel Anjelek, bere buruaz beste egin zuen handik urte batzuetara. Hirugarren solairu batetik bota zuen bere burua: hankak hautsi zituen, eta ospitalean eman zuen uda. Ondoko urtean ez zuen huts egin. 1983ko uztailaren 5ean bederatzigarren batetik bota zuen bere burua. Manuel Anjelek ez zuen anaia galtzeak ekarri zion mina gainditu. Carabancheleko kartzelan (Madril, Espainia) eman genuen gau-kaperan gelditu ere ez zen egin Manuel Anjel. Haren sufrikarioa, haren inpotentzia. Eskuak erre zituen zigarroekin… Gorriak ikusi zituen, ez zuen beste anaiarik, arrebak besterik. Nire ahizpa Dolores Fek ere inoiz ez zuen burua jaso. Depresioak jo zuen, pastillaz bete zuten, eta horrelaxe lehertu zen. 1975ean hil zuten José Luis, 21 urterekin; 1983an egin zuen bere buruaz beste Manuel Anjelek, 25ekin; hirugarrena, Dolores Fe izan, 33 urte zituela hila...

Zer diozu gurasoen minaz?

José Luis zen etxean amari gehien laguntzen ziona. "Ez dut bera bezalako seme-alabarik izan", zioen gure amak, "Eta kendu egin didate". Min horrekin bizi izan zen hil artean. Murtziara ekarri nuen bizitzera, nire altzora. Noizean behin esaten zidan: "Zer egiten dut nik bizirik munduan?". Bera bizirik, eta hiru seme-alaba hilik. Ez zitzaion buruan sartzen. Orduan, nik esaten nion: "Ama, behar zaitut!". Laguntza behar nuela esaten nion, bestela alde egingo zidala iruditzen zitzaidan, ez baitzuen bizitzeko gogorik. Latza izan da, latza, eta azkenean libre irten dira arduradunak, hemen ez da ezer gertatu, zigorrik ez da ezarri, ahaztu egin behar zela esan zuten, ezin zitekeela besterik egin. Beharbada, garai hartan ezin zitekeen bestela izan, baina gero ere ez? Garbiketa egin behar zen, eta krimen haien arduradunak epailearen aurrera eraman, eta Espainian ezin bada, Espainiatik kanpora.

José Luis eta beraren emazte Silvia Carretero Murtziatik Madrilera itzuli ziren. Hurrena noiz izan zenuen haien berri?

Abuztuaren 29an neba atxilotu zutenean. Prentsan irakurri nuen. Nebaren aurpegia ikusi nuen, ezin sinistuta, artean Mazarrónen zeudela uste bainuen. Gero, jakinekoa, abokatu bila abiatu nintzen. [José María] Gil-Roblesengana jo genuen, onena garai hartan. Hark, ordea, ezetz, baina Paka Sauquillo, Fernando Salas eta hauen bulegoko telefonoa eman zigun. Abokatu zoragarriak. Beraiek arduratu ziren. Saiatu ziren, baina ez zegoen zer egin. Prest zuten dena. Heriotza zigorra. Epaiketa ez zen izan simulakroa besterik. Ez ziguten frogarik onartu.

Epaiketan izan zinen.

Aretotik atera eta, amarekin batera, Madrileko DGSera [Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusia] eraman ninduten, atzetik beste auto batzuk zetozela. Gurearen atzetik, *Billy el Niño*rena. Atze-

Tarancón

"Orain Espainiako errege-erregina emeritu direnei telegramak bidali nizkien, eta [Vicente Enrique] Tarancón kardinalarekin hitz egiten ere saiatu nintzen.
Gau osoa eman nuen haren jauregiaren atarian, errezibitu zain, beste kondenatu baten ahizparekin. Tarancónen *Mercedes* beltz handiaren aurrean ere paratu ginen. Aita santua Madrilera etortzeko eskatzen genuen, Franco eskomikatzea.
Baina diplomazia nagusitu zen, eta horrela hil zituzten bostak"

Zakurrak oinutsik ez

"Lehengo batean, lagun batekin alderdi politikoen gainean ari ginela, leku guztietan zakurrak oinutsik direla esan zidan.
Baina ez da egia. Batzuk lapurreta bizian ari dira. Beste batzuk, aldiz, etxerik gabe daudenen alde ari dira, dirurik ez dutenen alde lanean. Ez, ez, leku guztietan zakurrak oinutsik ez"

Podemos

"Podemos-en sartu nintzen, ustez hortik onik etorriko zelakoan, baina ez da etorri. Asmoa zuzena zen, baina gizakiak huts egin du. Manuela Carmena, Ada Colau… miresgarriak zaizkit, baina zaila da inork besteren ongiaren alde bere burua erabat eskaintzea.
Botereak usteldu egiten du gizakia, askok esan dute nik baino lehen, eta ez da gezurra"

rago, atzerriko prentsa. Eta eskerrak atzerriko kazetariak zetozen. Nik uste haien lekukotasunaren beldur eraman gintuela poliziak hotelera, ni DGSen utzi beharrean... Artean epaiketa aretoan, nebari heriotza zigorra eman ziotenean nik "Luis!" hots egin nuen, eta berak burua jiratu zidan. Orduan, ondoan zuen polizietako batek kazkarreko bat eman zion, aurrera begira zezan. Ni hoska hasi nintzen: "Hiltzaileak, kriminalak!". Aretotik atera ninduten.

Gau-kapera etorri zen gero.

Bai. Humberto Baena ziegan alde batean, neba erdiko ziegan, Ramón [García Sanz] beste aldekoan. Abuztuaren 29an atxilotu zuten José Luis, irailaren 27an fusilatu, eta artean odola egiten zuen txizatan,

belztuta soina, begirada galdua. Txikituta zegoen. Haren emazte Silvia Yeseriaseko (Madril) kartzelan zeukaten, eta handik ekarri zuten. Nebak Silviaren sabela laztantzen eman zuen gaua, esperoan baitzegoen, lau hilabeteko. Gure familia han zegoen, Baenarena ez zen azken ordu

María Victoria Sánchez-Bravo anaiaren argazkiari begira. Beste argazkian, María Victoria bere amarekin Madrilen epaiketa egunetan.

arte iritsi, senideak Vigotik baitzetozkion. Ramón aitazurtza zen eta amaren berririk ez zuten... José Luisekin geunden Silvia, gure ama, nire ahizpa Dolores Fe, neba Manuel Anjel eta bostok, eta banatu egin ginen Baenarekin eta Ramónekin ere egoteko, hauekin abokatua beste inor ez baitzegoen. Ikaragarria izan zen gau-kapera hura. Galiziako kantuak kantatu genituela gogoratzen naiz... Ez diot inori opa. Orain ez dut nahi nire nebaren izena garbitu besterik. Ez zen terrorista, ez zen hiltzailea. Bizi naizen artean esango dut: neba gizon zintzoa zen, gizon ona, zentzuduna.

Lau hilabeteko zegoen José Luisen emazte Silvia. Alaba jaio zen, eta gaur egun Espainiak Herbehereetan, Hagan, duen enbaxadan idazkari da, aitaren memoriatik aldenduta.

Ez zuen aita ezagutu, jakina. Nire begietako ninia izan zen txikitan, nebaren alaba zelako, eta nik seme bi bai baina alabarik ez dudalako izan. Ez dakit Madrileko Frantses Lizeoan jaso duen hezkuntzak ere ez ote duen aitaren iruditik aldendu. 42 urte ditu, eta 18 urte bete eta lizeo amaierako festa egin zutenean utzi nion harekin harremanak izateari. Festa ikusgarria egin zuten Madrileko Palace hotelean. Hango limusina eta hango Koplowitz-ak. Nire printzipioen kontra zen hura, eta ez nintzen joan. Neskak izena aldatu zuen: Louise Sánchez Rostou ageri da, baina, egiatan, Luisa Ramona Humberta Anjela Juana Sánchez-Bravo Carretero da.

Aitaren izena ez ezik, Humberto Baenarena, Ramón García Sanzena, Anjel Otaegirena eta Juan Paredes *Txiki*-ren izenak daramatza.

Esan izan du oso pertsona diskretua dela, egunkariek irainka eraso ziezaioketela. Baliteke, ezagutzen dugu-eta prentsa. Baina min eman zidan ilobak izena aldatzea, eta kito, ez nintzen festa hartara joan. Harrezkero ez dut haren berririk izan.

Hoyo de Manzanaresen, Madrilen, fusilatu zituzten Humberto Baena, Ramón García Sanz eta zure neba José Luis.

Eta hantxe izan nintzen. Fernando Salas abokatua eta biok fusilamendu lekuraino abiatu ginen, baina ez ziguten bertaraino joaten utzi. Hala ere, garbi aditu genuen tiro hotsa, barrundatu genituen fusilatuen siluetak. Gero, fusilatze lekutik behera ikusi genituen poliziak, irriz eta karkaila. Ez dakit sustantziaren bat hartua zuten, edo edan zuten, baina pozik zetozen, hala guardia zibilak nola poliziak, exekuzio pelotoiak osatu zituzten boluntarioak. Gorpuak plastikozko poltsan sartzen ari ginenean Fernando Salas eta biok, asto beltzarenak eta bi esan nizkion sententzia eman zuen epaile militarrari. Zuri-zuri zegoen. Haren gustukoa ere ezin izan ikusten ari zena. Prentsari ez zioten igarotzen utzi.

Azken hitza:
Billy el Niño

"Guztiaren gainetik, gauza bat azpimarratu behar da: kalean libre dabilen *Billy el Niño* [Antonio González Pacheco, frankismo garaiko polizia, Poliziaren Goi-mailako Kidegoko inspektore Trantsizioan] epailearen aurrera eraman behar dela, justizia egin eta geratzen zaizkion egunak kartzelan igaro ditzan. 70 urte izango ditu honezkero. Igaro ditzala barruan geratzen zaizkion urteak"

Zure nebaren izena garbitzeaz ari zarela, 2012an Eusko Jaurlaritzak indarkeria politikoaren biktima aitortu zituen Txiki eta Otaegi. Aurten berean, berriz, Kataluniako Parlamentak frankismo garaiko epaiketak ezeztatu ditu.

Espainian pentsaezina da horrelakorik. PP agintean dagoelarik, pentsatu ere ez. Eta PSOEk agindu duenean ere, zer egin dute, bada? Nik ez dut bataren eta bestearen artean alderik ikusten. Non da diferentzia? Eta zer egin zuen PCEk, zer egin zuten [Santiago] Carrillok eta [Dolores] Ibarrurik? Ahaztu egin behar omen zen. Amnistia denentzat, batzuentzat eta besteentzat. Nire neba torturatu zutenentzat ere bai? Amnistia? Utik! Eta orain zer ari gara ikusten? Eskuin muturra gero baino gero harroago dabilela. Utzi egin dietelako. Estatuaren laguntza dute, prentsarena, eta sistema judizialarena. Hau Espainia da, adiskidea, hau Espainia da. Herri honetan jende askok baztertu gaitu. Gure semeak, besteak beste, Sánchez-Bravo direlako. Gu bizi ginen kalean, Vigon bertan, goian zerua eta behean lurra bizi zen batek ni ikusi eta gogoan dut ondoan zuenari esan ziona: "Begira, terroristaren arreba!". Zer jan ez duenak PPri botoa ematen dionak bezala. Zeinek ulertu? Zoratuta gaude. Mundua azpikoz gora dago. Ez dut ulertzen... Aizu, Otaegi fusilatu zuten, eta bestea? Tiroa jo ziotena? Garmendia zen, ezta?

Bai, Jose Antonio Garmendia Artola.

Gogoratzen naiz... n

ARGIA 2018ko egutegia

Hormak edukiz janzteko.

Egutegia 9€

Egurrezko taula egutegia opari 50€

943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Asperkeria

Estitxu Garai Artetxe
EHU-KO IRAKASLEA
@egarai

Euskal politikaren garai aspergarria bizitzen ari gara. Horra, lagun batek aurrekoan esan zidana. Burura etorri zitzaidan lehenengoa: "Ez zaio arrazoirik falta". Aurrekontuen negoziazioa, kupoaren negoziazioa, autogobernu ponentzia, bake eta bizikidetza ponentzia, zerga erreforma... Horrelakoxeak dira lerro-buruak betetzen dituztenak. Inor gutxi berotuko duten kontuak. Asko jota, teknokrataren bat edo beste.

Lehenengo pentsamendu horren ostean, ordea, hausnarketarako beta eskaini zidan. Aipatutako guztiak EAEko kontuak ziren. "Euskal" kategoria gero eta gehiago mugatzen dugu horretara. Ez da operazio *sinekdoke* bat. Ez dugu zatia guztiaren partez ikusten. Zatia bakarrik ikusten dugu. Gauza bera esango al genuke Iparraldea aintzat hartuta? Euskal politika aspergarri al dago? Ez dut uste, une politiko aski interesgarria bizitzen ari baikara bertan. Gauza bera esango al genuke Nafarroa begietan edukita? Beste horrenbeste, ezezkoan nago berriro ere. UPNren Gobernua bi hamarkadaz pairatu ostean, gobernu aldaketak irekitzen dituen aukerak ez dira hutsaren hurrena. Biak ala biak dira urtetan landutako zoroaren uzta. Asimilazio kulturalak aurpegi asko ditu, horietako bat: herri ikuspegia galtzea.

Bestalde, zer ulertzen dugu politika gisa? Ez al da ba politika eskola-jantokietako emakumeen borroka eredugarria? Eta Errekaleor auzoko dinamika? Ez al da hori politika oinarri-oinarritik egitea? Alternatiben Herria? Erraustegiaren aurkako mugimendua? Zenbat ekarpen feminismotik? Beste hamaika adibide jar daitezke. Politika alderdi politiko eta erakundeen kontua dela sinesten hasi gara, ez dago desmobilizaziorako bide eraginkorragorik.

Euskal Herrian beti izan dugu herri mugimendu eredugarri bat. Beti izan dugu eta badugu. Baina egurtutako txakur baten moduan gaude, belarriak behean eta buztana hankartean. Harrotasunetik gure burua etengabe gutxiestera pasa gara. Utzi adibide bat jartzen, nire uste apalean hori garbi islatzen duena. Hona beste lagun baten komentarioa: "Orain ere itzela egin dute kataluniarrek Bruselan 45.000 lagun bilduta, hori bai herritargo aktiboa eta ez gurea". Miresmenez ikusi dugu independentziaren alde eta Europar Batasunari laguntza eskatzeko hainbeste jende mobilizatzea Europan barna. Erakustaldi berri bat. Ez da gutxiagorako ere. Alta, egun batzuk geroago bake artisauek deituta 11.000 lagun bildu ziren Parisen. Hor, ordea, ez nuen halako komentariorik entzun, herri baten eta bestearen tamaina aintzat hartuta antzeko lorpena den arren. Autoestimua zer den, bata izugarritzat jotzen dugu, besteari garrantzia kentzen diogu.

Euskal Herrian beti izan dugu herri mugimendu eredugarri bat. Beti izan dugu eta badugu. Baina egurtutako txakur baten moduan gaude, belarriak behean eta buztana hankartean. Harrotasunetik gure burua etengabe gutxiestera pasa gara

Nolanahi ere, gaur egun ez dago zertan mugitu eta antolatu, jendearen kezkak ez baitira kalean islatzen, inkestek dioskute zeintzuk diren (modu ironikoa ON). Eitb Focus. Euskobarometroa. Soziometroa. Navarrometroa. Deustometroa. Droga gogorrak. Demoskoplarekin narkotizatzen gaituzte, galderan bertan gure kezka izan behar duena sartu eta gizartearen iritzi gisa aurkeztuta. Eroso bizi gara horrelakoak goizeko kafe eta pintxoarekin batera irensten. Erosoegi. Agian asumitzen hasi beharko gara aspergarria ez dela politika, aspergarriak gu garela. n

Adineko gizona

Imanol Alvarez
IRAKASLE OHIA

Lehengo astean gonbidatu ninduen Bilboko Udalak jubilatzen diren "maisu-maistrei" urtero egiten dien omenaldira. Komatxoen artean idatzi dut *maisu-maistra*, alkate jaunak bere mintzaldian behin eta berriro erabili zuen terminoa, hain zuzen. Ni ez naiz maisu izan, ordea, nahiz eta esan litekeen zenbait urtez maisuarena egin nuela. Lizentziatua nauzue, eta irakasle aritu naiz ia bizitza osoan, adin guztietako ikasleak izan ditudalarik euskaltegian, unibertsitatean, eskolan, institutuan eta, azken hogeitaka urtetan, Iralen.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoak izan ginen omenduak; denok irakasle, beraz. Hori zen alkateak erabili beharreko terminoa, irakasle. Haatik, badirudi *maisu* edo *maistra* erabiltzeak ahalbidetzen duela xamurkiago, eztikiago hitz egitea, umeak irudikatzen baititugu. Edozelan ere, egia borobila esan zuen alkate jaunak: zailagoa da heztea irakastea baino. Irakasleok, maisu-maistrak barne, irakatsi behar dugu; baina baita hezi ere, batez ere ume-gaztetxoekin arituz gero. Heziketa gurasoekin eta, oro har, gizartearekin elkar banaturiko lana da, halere. Hori nerabilen buruan, alkateari entzun ahala. Pentsatu nuen ni haurra nintzenekoaren kontrara, oraingo gurasoek autoritate guztia kendu ohi dietela irakasleei, elkarlana izan behar zena ia elkarren kontrako lehia bihurtuz. Eta, horren ondorioz, besteak beste, egun ume-gaztetxoekin aritzea orduan baino askoz zailagoa izan behar zaiela irakasle-maisu-maistrei, eta ongi merezia dutela/dugula omenaldi xumea.

> Aitak hil aurreko azken urteetan maiz esaten zidan: "Seme, ez dakit zer egiten dudan, baina ez daukat ezertarako astirik". Nik barre egiten nion; baina orain ulertzen dut ederto baino hobeto, neuri ere gauza bera gertatzen zait-eta

Hainbat medio egon ziren ekitaldiaren berri eman guraz. Hiru ziren zehazki: irrati, egunkari eta telebista bana; eta hirurek bertan geunden ia ehun lagunetatik ni aukeratu ninduten jubilatu izatearen esperientziaz berba egiteko. Bitxia! Irratian zuzenean nengoela hizketan, etorri zitzaidan burura aitak hil aurreko azken urteetan maiz esaten zidana: "Seme, ez dakit zer egiten dudan, baina ez daukat ezertarako astirik". Nik barre egiten nion; baina orain ulertzen dut ederto baino hobeto, neuri ere gauza bera gertatzen zait-eta.

Egin ez dut ezer berezirik egiten, baina denbora oso okupatua izaten dut: paseatu, kafea hartu, egunkariei begiratua, erosketak, etxeko kontuak, ordenagailuan aritu (hori ezin falta!)... eta, jakina, antzerkira, zinera eta abarretara joan. Esandakoa, ez dut ezertarako astirik. Hori bai, dena egiten dut batere estresik gabe, eta horrek ez du preziorik. Lehengo egunean irakurri nuen Elvira Lindoren artikulu polit bat, "adineko andreak dira kafetegiak, zinema-aretoak, antzokiak eta kultur ekitaldi oro betetzen dituztenak" zioen. Ni adineko andre ez, baina adineko gizona banaiz. Alajaina! n

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen lagunduko dizugu
SIGACUS
✆ 943 453 588 · www.sigacus.com

LUAarkitektoak
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...
Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

MARCOS
okindegia
Benetako aitzinako ogia
✆ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Kolore guztietako basoak

Iñaki Barcena Hinojal
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Zakilixut kritiko-zinikoak esana: "Eguberrietako hauek, bonbila fruitu... eta argiz betete!". Antton Olariagaren pertsonaiak duela 40 urtetik ontzen ditu iradokizun ekologikoak eta arlo asko ditu jorratzeko Euskal Herri txikian. Gure oihan eta basoetako egoera, horietako bat dugu, jakina.

"Kolore guztietako basoak". Horrela dio Bizkaiko 50 talde eta gizarte eragilek (ekologistek, zientzialariek, artista eta baserritarrek, kooperatibek, basogintzako enpresek eta sindikatuek…) Bizkaiko Aldundiari eraman dioten errebindikazioak. Nekazaritza Sailak emandako datu ofizialen azterketa sakon eta diagnosi argia eginez gero, proposamen batzuk egin dizkiote Bizkaiko Gobernuari. Monokultibotik naturaren hurbileko baso kudeaketara pasatzea defendatzen dute, baso publikoetan batez ere, baina jabe pribatuentzako laguntzak ere eskatuz. Egun, Bizkaia eta Gipuzkoako basoek ez dute arabarren edo nafarren kolorerik. Iparraldeko oihanena ere ez. Kolore eta jabegoa.

1857an, Adan de Yarzatarrek *Pinus Radiata* ekarri zuten Kaliforniatik Ispasterrera eta hortik aurrera bere landaketak bultzatu zituzten. Gaur egun Bizkaiko eremuan 70.000 hektarea ditugu. Pinu eta eukaliptoen landaketak lurraldearen %75a dira eta baso autoktonoak %25a (pagoak, haritzak, gaztainondoak…). Kurioski, proportzioa berdina dugu lur publiko zein lur pribatuetan. Bizkaiko ekologistek kopuru hauek aldatu nahi dituzte. Lur publikoetan (%27 soilik) bertako basoa berreskuratuz bertako baso azalerak %41 lortu arte eta landaketa aloktonoa %59ra jaitsi.

Basoak ala porlana? Nola erantzungo diote Bizkaiko agintariek ekimen "erreformista" honi? Ikusteko dago, baina Unai Rementeriak Gernikako Batzarretan esan zuena ezagututa, euren planak zementuari loturik doaz. Koiuntura ekonomiko "gozoa" dagoenez, diru-biltze gehiagorekin Arrontegi zubiaren "anaia bikia" eta Hegoaldeko saihesbidea (*Supersur*) luzatzea AP-68rekin lotuz, aurreikusten ditu diputatu nagusiak.

Eta burura etortzen zaidan galdera da: non jarriko ditu ekologismoak bere atzamarra eta indarrak? Baso politika berria eraikitze aldean ala porlanezko inbasioari ezetza ematen? Nire uste apalean, biak ala biak dira ezinbestekoak. Osagarriak dira, ez kontrakoak. George Monbiot kazetari ekologista britainiarrak Gales eta Eskoziako basoen defentsan idatzitako liburuan dioenez (*Feral: Rewilding the Land, The Sea and the Human*, 2016; gaztelaniaz *Salvaje, Capitan Swing*, 2017) mundu osoan dugu gatazka hori, lurra dutenen, erabiltzen dutenen eta Lurra zaindu nahi dutenen artekoa. n

Victor Lainezen heriotzaz

Itziar Bardaji Goikoetxea
IRAKASLEA

Komunikabide nagusiek ofizial bihurtu duten bertsioaren arabera, okupa antisistema batek espainiar banderako tirantedun tipo bat bortizki erailtzen du, tiranteak ez beste arrazoirik medio. Bertsio bakar hau sentsazionalismo osoz hedatuz, kasu hau mediatizatzeak abantaila batzuk ditu:

Ekintzaile eta militante antikapitalistak bere tokian jartzen ditu: kriminal biolento arriskutsuak. Okupazioa estigmatizatzen da (*sakratum jabegum pribatum*, *amen*). Antisistema hitza tabu bihurtzen du: oraingo antisistema da pasa den mendeko komunista.

Tirante hori-gorriak erdigunean jarrita, Espainiarekiko gorrotoa da mintzagai. Gorrotoak mugitutako basati hauek dira, Altsasuko gazteak bezala, terrorista berriak.

Mutur eskuineko fatxa bat biktima errugabedun bezala irudikatzen da. Estatuaren funtzionario eta ordezkari hainbatek –gehiegik– espainiar nazionalismo ultraeskuindarraren gorakada eta neonazien inpunitatea irribarretsu begiratzen dute. Gainera, kasu honek eta 4F-ko muntaia polizialak batak bestea indartzen du. Batak Rodrigo Lanzaren izaera kriminala ezartzen du eta besteak berretsi.

Berriz ere gezurrak muturrean, berriz ere amorrua, injustizia, beldurra, kalte-beratasun biluzia, inpotentzia eta etorkizun iluna, antsietatea. Nori tokatuko zaio loteria hurrengoan? n

Hezkuntza neoliberalaz

Katixa Dolhare-Zaldunbide
IDAZLEA

Denok badakigu Lehen eta Bigarren mailako hezkuntzetako programa eta helburuak politikoki bideratuak izaten direla, bai orokorrean –adibidez, matematikei ordu kopurua emendatzen zaienean, hizkuntza ordu kopuruak apaltzen diren ber; edo ikasleak behartuz ingelesa lehen hautuzko hizkuntzatzat aukeratzera–, bai ikasgai xehetan –hara nola aurre-historia aitzineko iragan guzia isilpean utziz, XX. mendekoa, alderantziz, zabal eta luze aztertzera inposatuz, betiere, bistan dena, garaileen bertsio ofizialaren ikusmoldeari jarraikiz. Gisa berera, sumagarri da politika mundua menpeko daukan sistema kapitalistak dituela bultzatzen, zuzenki ala zeharka, delako programa haiek. Hori argi da, konparazione, 13-15 urte arteko nerabeei zuzendu "lan-mundu deskubritze" jardunaldiak aztertzen baldin badira, lan-mundua osoki enpresa errentagarriaren ereduari lotzen dutelako. Halere, politikoki zuzen egon beharrean, iruditzen zait orain arte Hezkuntza saileko administrazioak ez zituen argiki asumitu kutsadura horiek.

Bizkitartean, irakasle gisa berriki segitu dudan formakuntza batean gertatu da hezkuntza teknokraten *coming-outa.* Hain zuzen ere, saio hartan bilduak ginen irakasle andanari, Hezkuntza Nazionalaren hitz ofizialetik mintzo zen ikuskariak aktibitate harrigarria eginarazi zigun. Okzitaniako Tolosako Unibertsitateko pedagogo baten hitzaldia erakutsi zigun bideo baten bidez. Horretan, 9 urteko haurrendako matematika problema batetik abiatu zen, hau da: 2 euroren truke bi pilota erosten badira, jakinez batak besteak baino 0,5 euro gehiago balio duela, zenbat balio du pilota bakoitzak? Jende gehienak, gehiegi gogoetatu gabe, erantzuten omen du pilotak 1,5 euro balio dituela eta bigarrenak 0,5, baina erantzun zuzena da 1,25 eta 0,75. Delako pedagogo handi hark ez zuen orduan ondorioztatu matematiketan beti egiaztatu behar direla emaitzak : "Ariketa horren bidez zuhaurrek frogatu duzue gizakiak intuizioa arrazoimenari gaina hartzera uzten duelarik, okerreko bidea hartzen duela. Irakasle gisa, zuen lana izan behar da, beraz, klaseetan haurren intuizioak isilaraztea, eta haien arrazoimena garatzea".



Antton Olariaga

Hots, gizon haren bidez, Hezkunde Nazionalak galdetzen zigun ikasleak delako robotak bihurraraztea, naturalki ager zitzaketen "intuizio" basak beren baitan zentsuraraziz. Delako puntako ikerlari hark, bere demostrazioarendako autoritate babeslea beharrezkoa balu bezala, espantagarriki bururatu zuen: "Ondorio hori, ez dut nik asmatua: ekonomian Nobel saridun ospetsu bati zor diot, Finn Erling Kydland jaunari hain zuzen". Ekonomialari ultraliberal horren ustez, ekonomiaren funtzionamendu harmoniatsuaren oztopo nagusia da gizakia bera, automatek ez bezala ukan dezakeelako ustekabeko ihardukitzea gertakariei aurre egiteko.

Hara, beraz, Frantziako Hezkunde Nazionalak ikuskari eta pedagogo ofizialen bidez proposa ditzakeen "formakuntzak" 3 eta 15 urte arteko haur eta gazteen irakasleentzat: lehen ez bezala, orain ahoan bilorik gabe galdegina zaigu klasean dauzkagun neska eta mutikoen sentsibilitatea, intuizioa edo irudimen gaitasuna mututzea, hondarrean ekonomia ultraliberala hobeki ibilarazteko. Zinez ahalkegarri eta oldargarri iruditu zitzaigun saio hura han bilduak ginen irakasleei. Nehoiz baino gehiago, oraingo haur eta gazteei beren emozioak adierazteko eta beren sorkuntza gaitasuna lantzeko une eta tresnak eskaini behar dizkiegu helduok, batez ere sozialki transmisio ardura dugunok. n

GAZTEZULO

HARPIDETZA

KULTUR APUR BATEK EZ DIZU KALTE EGINGO

NOSTALGIKOA

Jaso **ALDIZKARIA** hilero zure postontzian, 22€ urtean

NATIBO DIGITALA

Eduki esklusiboak **ONLINE** une oro, 11€ urtean

%100 GAZTEZULO

ALDIZKARIA postontzian eta
eduki esklusiboak **ONLINE**, 28€ urtean

harpidetza@gaztezulo.eus
943 457 250 / 640 122 382

gaztezulo.eus



GARAIPENAREN OSTEAN

KUDEAKETA ETA ERRESISTENTZIA DOINUAK

Blokeen hauteskundeak izan dira oraingoak eta bloke independentistak argi irabazi ditu Kataluniako hauteskunde autonomiko bitxi eta gogorrenak: 155. artikulua bototan garaitu du, lorpen handia.

Xabier Letona
@xletona

Garaipenak, ordea, badu bere orbana, Ciutadansek irabazi baititu lehenbiziz hauteskunde batzuk, oso modu indartsuan gainera: 1.102.000 boto zerbait itzela da. Inoiz gertatu gabekoa da eta Europan ematen ari diren antzeko fenomenoak Katalunian ere errepikatzen direla erakusten dute.

Funtsean, emaitzek azken urteetako mapa politikoa finkatu dute, inoizko parte-hartze handienarekin gainera (%81,94) eta ez da samurra izango hor aldaketarik izatea epe laburrean, areago hain giro gotortu eta polarizatuan. Independentismoaren beldurra zen parte-hartzearen igoerak batez ere unionismoa mesedetzea, baina ez, igoerak berari eman dio garaipena, eta boto unionistaren multzoak Cs-i, alderdi honi Espainian oso gora egiteko tranpolina jarriz.

ERCk ez du lortu

Blokeen barruan Cs-ena erabat historikoa da Katalunian. Bartzelonako Gràcia auzoko Jesuiten eskolan, Artur Masek bozkatzen zuen berean, Cs-en paper multzoa zegoen txikien 14:00etan eta neure parean zazpi lagunek heldu zioten agerian boto-paperari: horietatik bost Inés Arrimadasenak ziren. "Zerbaiten seinale ote da?", pentsatu nuen. Bazen. Unionismoaren baitan denetik bildu du bere sarean Albert Riveraren alderdiak, eskuin muturretik PSCren botora eta agian baita En Comútik ere. Izango da denborarik lasaiago aztertzeko, eta baita ere ikusteko aparra den edo geratzeko etorri den. Edozein modutan, PSC ezinean utzi du eta PP lurpean.

Esparru independentistan lehia zorrotzagoa zen eta, eskura bide zuenean, ERCk ez du helburu historikoa lortu: JxCAT gailendu zaio, Carles Puigdemont, betiko Convergencia, nahi dena; egin daitezke ñabardurak, baina kontua da azkenean erabat lurperatua zirudien pujolismo soziologiko zahar hark hobitik egin duela kuku, eta nola. Alde horretatik etsita zegoen ERC, baina egunak aurrera egin ahala berpiztuko da, 2012ko hauteskundeetatik hona 8 puntu igo baititu. Seguruenik 2015ean jada hor zegoen igoera, Junts Pel Síren baitan, baina oraingoan igoera zenbatu ahal izan du. Tentsio handiko harremana izan dute bi indarrek gobernuan eta hala izaten jarraituko dute, inork ez baitu zalantzan jartzen berau berriz errepikatuko dela.

Bi eserleku irabazi arren kolpea hartu du PSCk eta galtzaileen artean beste horrenbeste En Comúko munduak: bazekiten estu ibiliko zirela, baina Espainiako hauteskunde orokorretako garaipenetik bosgarren indarrera pasatzea eta txikien tropelean kokatzea latza da. Are latzagoa CUPen emaitza: 2015ekoa espejismoa izan zen. Orduan 2012ko 3 diputatuetatik egungo 4ra pasatzea pozarren egoteko datua izango zen, baina tartean 10 izan dituenez, 6 eserlekuren galerak sakon pentsarazi beharko dio. Kaleko alderdia da CUP eta udaletakoa, baina kalera itzuli beharko du bereziki, handik eragiten jarraitzeko.

CUP giltzarri izan da egungo egoerara iristeko, berak behartu baitzuen JxSí erreferendumeraino. Tentsioak tentsio, hori aitortu egin dio gainera independentismoaren zati handi batek. Edo hori uste zen, emaitzek, egiazki, zigortu egin baitute. Zigorra baino, alabaina, badirudi boto baliagarria izan dela CUPeko boto emaile askoren hautua, beldurraren botoa. Eta esparru sozialetik ere galduko zuen beste zati bat seguruenik: erreferendumera iristeko Gobernua sostengatu beharraren faktura hor dago.

Legebiltzarrean, hala ere, gehiengo osoaren giltza garrantzitsua izaten jarraitzen du, hori bai, dagoeneko ez da ezinbestekoa, ez lehendakaria hautatzeko, ez gobernagarritasunerako: JxCAT-ek eta ERCk 66 eserleku dituzte, beste lau alderdi estatalistek baino bat gehiago. Horrek asko erraztuko dio kudeaketa hurrengo lehendakariari, eta ez dago batere garbi hau Puigdemont izango denik, besteak beste gaur gaurkoz Espainiako justiziak espetxeratu egingo duelako hanka bat estatuan jarri orduko.

Arrimadasen Ciutadans izan da lehen indarra. PPko García Albiolek hauteskunde gauean gogorarazi zion: "Batzuek bost minutuz ospatuko dute garaipena, eta gero konturatu gurekin oposizioan daudela".

Autonomia edo Errepublika?

Independentismoak 155. artikulua, PP eta Mariano Rajoy garaitu ditu, eta asko da hori, etxera zein nazioartera begira. Plebiszitua argi irabazi du, baina emaitzek ez dute egoera politikoa asko aldatzen, ez behintzat berehalakoan. Kataluniako gizartea inoiz ez bezala bitan zatitua dagoela erakusten dute emaitzek eta, beraz, horrek adierazten du independentismoak denbora beharko duela bere legitimitate soziala sendotzen jarraitzeko.

Botere harremanak ere hori dio, independentismoak irabazi du, baina botorea hori baino askoz konplexuagoa da, eta oraingoz eltzearen kirtena Madrilen esku dago arrazoi askorengatik. Esparru instituzionalean independentismoarentzat kudeaketa garaia da berriz ere, eta erreferendumaren eskakizuna hor izango da lehen lerroan, baina ez da hil ala bizikoa izango, legealdiaren ardatz, joan den agintaldi labur honetan izan den moduan.

Nola maneiatzen dira erresistentzia eta kudeaketa aldi berean? Hori izango da datozen urteetan ikusiko dugun fenomenoa. Erresistentziatik eraiki beharko du orain independentismoak, bai esparru instituzionalean bai kalean. Instituzioetan kudeaketa izango da oinarri eta hori samurragoa du, Gobernu berriak ez dituelako ezinbesteko CUPeko botoak. Baina Madrilen aurrean erresistentzia izaera hori ere ezinbestekoa izango da, Madrilek maila askotako erasoak egingo dizkiolako Kataluniaren autogobernuari.

Orain formalki bertan behera geratuko da 155. artikulua, baina honek ate bat ireki du eta ordezkatzen duen hori guztia Katalunian geratzeko etorri da, eta ahal bada berau astintzeko, Madrilgo neurri askotan ikusiko dugun gisan, izan hedabide autonomikoetan, hezkuntzan, hizkuntzan edo finantzazioan. Estatuak ikusi du errepresioarekin ez duela independentismoa garaitu, baina ezta galdu ere; independentismoak unionismoa batu du, eta errepresioa ez da horretarako oztopo izan. Bere beharretara modulatuko du berau Madrilek, baina aurrera begira errepresioak beste erabateko rola izango du Kataluniako gizarte eta politikan.

Eta urriaren 1ekoaz zer?

Independentismoak bere helburuei begira inoiz lortu duen gailurrik gorena da urriaren 1eko erreferenduma, hainbat ikuspegitik begiratuta gainera: Espainiako Estatua aurrean izanda, berau egitea lortu zuen eta 2,3 milioi lagunek botoa ematea; baina horrez gain, bai 1ean bai urriaren 3ko greba orokorrean metatutako indar soziala sakon aztertuko da unibertsitateetan. Galdera batek luzaroan egingo du dantza independentisten artean: balio al zuen indar horrek guztiak Kataluniako Errepublika aldarrikatu eta aurrera egiteko? Hori da airean geratzen den galdera nagusia eta oraindik hausnarketa asko ekarriko duena.

Baina urriaren 1eko garaipen epiko hura borobila izan zen moduan, ondorengo kudeaketa akatsez eta etsipenez betea izan zen. Erreferendum egunean gertatutakoek eta bere emaitzek ezustean harrapatu zuten Carles Puigdemonten Gobernua –mundu guztia, egia esan– eta honek ez zuen jakin izan nola kudeatu indar metaketa ikaragarri hura, beldurtu zen eta horren ondorioz puxi-

ka soberanista erabat hustu zen, ekimen politikoa noraezean zebilen Espainiako Gobernuaren esku utziz.

Ez dakigu zer gertatuko zen Generalitateak urriaren 2an edo 3an Errepublika aldarrikatu izan balu. Espainiak errepresioa asko areagotuko zuela bai, baina noraino? Eta nola erresistituko zuen independentismoak? Hori ere ez dakigu, baina ehunka mila herritar kalean erresistitzeko prest zirela, hori badakigu.

Herriak erabakitzen du

Pentsatzekoa da orduko aktore bakoitzak bere ikasgaiak aterako dituela eta oraindik batzuk ateratzear direla, baina bi ondorio bederen argi mamitu beharko ditu independentismoak: bat, buruzagitzak askoz argiagoa eta gardenagoa izan behar du herriarekin, bai planteamenduetan, bai hauen garapenean eta baita erabakietan ere. Bi, irribarreen iraultza ondo da filmeetarako, eta batzuetan akaso baita errealitaterako ere, baina ez da nahikoa boterea eskuratzeko, eta kasu honetan ez da nahikoa izan Kataluniako Errepublika indarrean jartzeko. Hori egin nahi duenak, bere esku duen indar guztia erabili beharko du, bestela jai. Espainiak eta gainerako estatu indartsuek hori egiten dute, haien herritarren legitimitatean oinarrituta.

Orain, hori guztia hausnarrerako bazka da. Beldurra oso ulergarria da, begirune handiz hartu beharrekoa. Ez beldurra bakarrik, baita jarrera arduratsua ere; akaso hori zen egin beharrekoa errepresio bortitza saihestu gura bazen, edo ez, baina herritarrei argi hitz egin behar zaie eta, batez ere, argi izan behar da herriak berak erabaki behar duela aurrera edo atzera egin.

Ikasgai horiekin guztiekin eta oraindik azaleratu gabe dauden beste batzuekin, independentismoak estrategia berri bat marraztu beharko du independentziara bidean eta, oraingoz, erreferendum adostua lortzeak helmuga garrantzitsuenetakoa izaten jarraituko du. En Comúren munduak funtsezkoa izaten jarraitzen du ikuspegi horretatik. Hauteskundeen biharamuna goiz da oraindik egoera berriaren klabe denak mahai gainean agertzeko, batez ere errepresioari dagozkionak, presoak, erbesteko gobernua, auziperatzeak... Datozen ordu eta egunetan izango dira errealitate berria interpretatzeko zantzu gehiago. n

2017
KATALUNIAKO PARLAMENTUAREN OSAKETA



2017
Parte hartzea: %81,94

Ciutadans: 37
Junts per Catalunya: 34
ERC: 32
PSC: 17
Catalunya en Comú-Podem: 8
CUP: 4
PP: 3

2015
Parte hartzea: %74,95

Junts pel Sí (PDeCAT + ERC)**:** 62
Ciutadans: 25
PSC: 16
Catalunya Sí que es Pot: 11
PP: 11
CUP: 10

BLOKEKAKO EMAITZAK

Indar independentistak:
2017: 70 eserleku (2.063.361 boto, emandakoen %47,32)
2015: 72 eserleku (1.957.348 boto, emandakoen %47,56)

155. artikuluaren aldeko indarrak:
2017: 57 eserleku (1.889.176 boto, emandakoen %43,32)
2015: 52 eserleku (1.605.563 boto, emandakoen %39, 01)

Catalunya en Comú-Podem:
2017: 8 eserleku (323.695 boto, emandakoen %7,42)
2015: 11 eserleku (366.494 boto, emandakoen %8,90)



IRITZIA

A-21: Eustea garaitzea da

Àlex Romaguera
@AlexRomaguera

17:28 ziren, ordu penintsularra, eta negua argitzen zuen ez atzera ez aurrera dabilen errealitate baten oinpeko Katalunian: independentismoak gehiengo osoa dauka, baina eskuburdinak gibelean eta boto espainiarzalea galbanizatu duen indar metafalangista baten presiopean.

Hau da paisajea borrokaldiaren ostean. Egin beharko dira kalkuluak agertoki posibleez, gobernatzeko geometria anitzak antzematen baitira, baina ezin diogu erretrobisoreari begiratzeari utzi, panorama politikoa baldintzatzen duen zerbait baldin badago, hori benetako salbuespen egoera delako.

ERC, JxCAT eta CUPek garaipen pirriko baina izugarri sinbolikoa den hau jasotzen ari ziren bitartean, Guardia Zibilak azken txostena eman zion Pablo Llarena epaileari: azken Diadetako manifestazioak eta 31 kargu publiko sartzen ditu Espainiako Auzitegi Gorena izapidetzen ari den matxinada delituaren parte gisa.

Hauteskunde eguna hasi zen Espetxeetako Zuzendaritzak Oriol Junqueras lehendakariordea zigortzeko erabakiarekin. Estremeran espetxeratua, RAC1 irratiarekin elkarrizketa egin izanagatik bost egunez isolamendua ezarri dio. Eta irakasle eta alkateen kontrako salaketa gehiago egiten ziren bitartean, presoen eta Bruselan erbesteratutako gobernuaren aldeko ikur hori oro kentzen zuen Poliziak espazio publikotik.

Ingurua bortxatzen duen joko-taula honetan bizi izan dira post-frankismoko hauteskunderik anormal eta esperpentikoenak. Agian horregatik aintzat hartu beharko litzateke independentismoaren gaitasuna hauteskundeetako zorua sendotzeko: Errepublikaren Defentsarako Komiteak (CDR) horren espresio menderakaitzena dira, unionismoa lasai asko gailentzeko eremua prestatu duen 155. artikuluaren aurrean. Hori ikusi da Bartzelonako arean, gerrikoa gorri izatetik laranja izatera igaro baita; Ciudadanosen zerbitzura egindako operazio politiko-mediatiko baten emaitza da, eta PPk lehen momentutik onartu du hooligan papera *¡A por ellos!* oihuarekin.

Ikuspegi horrekin, Madrilek Generalitata usurpaturik eta erregeorde bat botoak zenbatzen, herrialde erdia harri eta zur begira dagoen bitartean, kolore horixka errepublikarrak iraun dio Moncloak lurrez, airez eta itsasoz jaurtitako erasoaldiari.

Hemendik aurrera, jakiteke dauden gauza guztiek probatuko dute kolpeekin eta beste fakturekin jendarteko zati honek bereganatutako erresistentzia. Zalantzan dira gobernu legitimoaren etorkizuna eta harlauza batek adina pisu duten auziak. Baina urriaren 1a eta boto-kutxetan *in extremis* lorturiko garaipen hau, eutsi beharreko kapital handia dira. Ez biharko, baizik eta independentismoak Errepublika formarekin konkistatu nahi duen zerumuga horretarako.

IRITZIA

Europa, entzun

Gemma Aguilera
@Gemmaaguilera

Independentismoak berriz erakutsi du gehiengo dela Katalunian. Errepresioaz gain, eta mehatxuak, gerra zikina, preso politikoak, erbestea eta 78ko erregimenaren zerbitzura dagoen justizia egonagatik ere, Parlamenta Rajoyk bahituta izan duen arren, JxCAT, ERC eta CUPek gehiengo osoa dute. Ciudadanosek behin eta berriz esango du, temati, galtzaileen arteko paktu bat dela eta Arrimadas dela presidente legitimoa. Faltsua: Cs-ek, IBEXen eta Espainiako Gobernuaren alderdiak –Albiolek PP eraman baitu erabateko hondamendira–, PP eskuinetik aurreratu baizik ez du egin. Baina ez du Katalunian irabazi, onartu behar den arren emaitza indartsuak izan dituela. A-21eko boto-kutxek nabarmentzeko hainbat mezu utzi dituzte: Cs-en gorakadak kezka sortzen du, eskuin kontserbadoreena ordezkatzen duenak hiri langileenetan irabazi baitu modernotasunez mozorrotua. Baina bereziki, boto-kutxek bloke errepublikarra eta bere presidente eta Govern legitimoak are gehiago legitimatu dituzte, urriaren 27an independentzia aldarrikatu zutenak hain zuzen. Errepublika katalana eraikitzen hasi behar dira, baina testuingurua ez da erraza izango.

Gorenak independentismoaren kontrako auzi orokorra zabaldu du, sorgin ehizak amai dezake buruzagi guztiak espetxeratuz, orain giltzapean daudenez gain. Auziak bere baitan dauka pieza nagusia harrapatzea: Kataluniako presidente legitimoa Belgikan dago eta Kataluniara itzuliz gero seguruenik atxilotua izango da berehalakoan. Egoera horretan, Europak entzun egin behar du. Europarik gabe, demokrazia Katalunian bideraezina izango da. Halaxe izan da 155arekin. Katalanek ez dute sobera motibo Europar Batasunaz fidatzeko, itsu eta gor dauden estatuen klubaz. Baina ez dute beste aukerarik. Edo fidatzen dira, edo garaitua izan den 155aren blokeak Kataluniako nazioa deuseztatuko du hamarkada askoan.

Independentismoak, bere aldetik, Governa azkar osatu eta hasi beharra dauka lanean zatiketarik eta interes alderdikoirik gabe. Eskuzabaltasuna eta inteligentzia beharrezkoak izango dira.

Donostiako Ospitaleko errehabilitazio unitatean, arreta euskaraz bermatzeko zirkuitua prest

Hala nahi duen erabiltzaileak arreta guztia euskaraz jasotzea bermatzen duen zirkuitu elebiduna abiatu dute Donostia Ospitaleko errehabilitazio unitatean. Bertan eskaintzen diren zerbitzu guztietako profesionalak barnebiltzen ditu.

Jon Ander De la Hoz
@delarregi
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

"Arreta euskaraz eskatzen dutenei hala eskainiko dieten profesionalak bermatzea". Hitz horiekin laburbildu du Ander Zuloaga Donostiako Ospitaleko euskara zerbitzuko arduradunak errehabilitazio unitatean abiatu duten zirkuitu elebiduna. Zirkuitua pazientearekin egongo den osasun langile sortak osatzen du. Helburua langile kate osoak pazienteari euskaraz egitea da. Osakidetzaren II. euskara planean jasotako proposamena da zirkuitu elebiduna sortzea espezialitateetan; lehen mailako arreta sisteman aurrez dago derrigortuta.

Zirkuitua martxan jarri aurretik azterketa egin dute, medikuntza eta erizaintzako zuzendaritzekin elkarlanean. Espezialitateetan euskararen ezagutza -maila zenbatekoa zen aztertu zuten, eta zirkuitua ezartzeko aukerak non egon zitezkeen hausnartu. Hala ondorioztatu zuten Donostia Ospitaleko errehabilitazio unitatea egokia zela proiektua abiatzeko, profesionalen ezagutza-maila egokia zelako, batetik, eta bestetik gaixoek barruan egiten duten zirkuituan kudeagarria litzatekeelako.

Errehabilitazio unitatera jo zuten gero, bertako zuzendariei proposamena egiteko. Javier Barrera eta Jose Artetxe solairuko buruei azaldu eta lehendabiziko pausoak eman zituzten. Euskara taldeko kideek unitatearen lan dinamika aztertu zuten eta ohartu ziren zirkuitua ezartzea lor zitekeela. Azken finean, zehaztu du Zuloagak, zirkuitu elebiduna gauzatzea jarraibide batzuk jarraitzea da. Esaterako, arreta euskaraz nahi duen gaixo bat detektatzen dutenean –izan fitxan jarrita duelako edo sarreran eskatu duelako– hala eskaintzea. Euskara sailak zirkuitua abiatzeaz gain profesionalei laguntza eskaini die.

Euskarazko arreta bermatzen dutenen artean daude Xabier Valencia medikua, Araitz Maeztu fisioterapeuta eta Igone Esnaola erizainen gainbegiralea. Valenciaren esanetan, unitateko buruen bidez izan zuten zirkuituaren berri. Bere esanetan, "garrantzitsua da euskararekiko sentsibleak izatea, eta hala dira unitateko buruak". Aitortu du ez zaiela oso zaila egin proiektua barneratzea: "Zerbitzukook plan estrategikoa idatzi behar izan genuen duela ia bi urte eta bertan idatzi genuen euskara sustatzea. Oso barneratua dugu zerbitzuan".

Zirkuituaren eraginkortasuna

Lau profesionalen ustez, zirkuitua ondo ari da bere bidea egiten: "Baliabideak solairu guztietan daude, baina hemen askoz zorroztasun gehiagoz aplikatzen dira zirkuituaren eraginez", dio Zuloagak. Horietako bat da sistema informatikoan hizkuntza lehentasunak txertatzeko aukera. Maezturen arabera, "errehabilitazio gunera datozenean galdetu ere egiten diegu, baina sistema informatikoan aukeratzean hor geratzen da eta primeran funtzionatu dezake".

Paziente bakoitzari zein hizkuntzatan nahi duen galdetzea zirkuituaren prestaketa garaian egindako hausnarketaren ondorio da, eta ez da hausnarketak ekarri duen hobekuntza bakarra, Zuloagaren iritziz: "Ziur naiz hizkuntza lehentasunak ordenagailuan begiratzea hemen gehiagotan egiten dela beste leku batzuetan baino". Alabaina, hausnarketa prozesuan ez zuten guztiek hartu parte. Maeztu ez zen azaldu, esaterako: "Hausnarketa prozesua sentsibilizatzeko dela iruditzen zait, eta nire ustez, aurrez sentsibilizatuta nengoen. Prestaketetan bai, hartu nuen parte". Hala ere, azpimarratu du jende asko aritu zela hausnarrean, "baita beste zentroetatik etorritakoak ere". Bi prestaketa mota egin zituzten. Lehenik hausnarketa saio batzuk egin zituzten, eta gero prestakuntza faseari ekin zioten; euskaraz lana egiteko ikastaro modukoa izan zela dio Zuloagak.

Arduradunen rola oso garrantzitsua dela uste dute guztiek ere. Zuloagak dio profesionalak animatzeko eta gauzak

Errehabilitazio unitatean langile kate osoak euskaraz egin dezan lortzen saiatzen dira, pazienteak arreta euskaraz jaso dezan. Estrategia bat baino gehiago erabiltzen da horretarako: gaixoei ohe gaineko arbelean "e" letra jartzen zaie, pazienteari galdetu egiten zaio euskaraz nahi al duen, zuzenean euskaraz egiten zaio, eta abar.

transmititzeko garrantzitsuak direla. Maezturen ustetan, berriz, arduradunak gako dira proiektu honen prestaketan erraztasunak ematerakoan, "ordutegiei dagokienez malgu, eta baimenak ematerakoan ere jarrera ona izan dute".

40 lagun dabiltza zirkuitu elebidunaren jiran. Errehabilitazio unitateko langile guztiak dira zirkuituaren parte, baina guztiek ezin dute bermatu euskarazko arreta. Gehienak erizainak eta erizain laguntzaileak dira, eta %40 inguru dira euskaldunak. Fisioterapeuten artean dago euskaldun gehien, hamarretik zortzi. Batez bestekotik gora daude. Aldiz, medikuen erdia pasatxo da euskalduna.

Egunerokotasuna da gakoa

Zirkuituaren eraginkortasuna egunerokotasunean neurtzen da. Euskarazko arreta bermatzeko urrats jakinak ematen dituzte profesionalek: "Ingresatuta dauden pazienteak bisitatzen ditut egunero, eta arreta jaso nahi duten hizkuntza identifikatuta badute, oso erraza da", zehaztu du Valenciak. Hala, euskarazko arreta nahi badu –ohe gaineko arbeletan jartzen du, besteak beste–, zuzenean euskaraz egiten die. Aldiz, identifikaziorik ez badu, lehendabizi euskaraz zuzentzen da medikua: "Euskaraz agurtzen ditut, eta euren erantzunaren arabera jokatzen dugu. Euskaraz erantzuten badu, hala jarraitzen dugu, eta bestela zer nahiago duen galdetzen diogu", adierazi du Valenciak.

Arbelean hizkuntza aukera agertzearena ez da solairu guztietan gertatzen. Errehabilitazio unitatean hartutako neurri bat da, hausnarketa prozesuaren baitan erabakitakoa: "Beste solairuetan egiten bada imitazioz da, zabaldu egin dugulako, baina hemengo erizainek proposatu zuten zirkuituaren lanketan", zehaztu du euskara arduradunak.

Badituzte bestelako neurriak ere: "Paziente bat ikusi eta zer terapia behar duen erabakitzean fitxa bat ematen diegu terapia horretako langileei. Paziente euskaldunen kasuan zigilu bat jartzen dugu fitxan, ahal dela euskarazko arreta bermatu dezaten terapian", dio Valenciak.

Maeztuk gogora ekarri du "e" letra moduko bat ere jar daitekeela historial klinikoan, euskara aukeratzeko. Horiei begira aritzen da Igone Esnaola, solairuko arduraduna: "Nik egunero ospitaleratze guztiak ikusten ditut eta historia klinikoan "e"-a duela ikusten badut, bere ohe ondoko arbelera joaten naiz. Normalki, jarrita egon ohi da, erizainek ohitura hartu dutelako". Langileei ohartarazten ere saiatzen da gainbegiralea. Bere esanetan, jende aldaketa asko egoten da solairuan, erizainei dagokienean-eta, eta beti gogorarazten die argibideak ematen dituen liburuxkaren azken orrialdean euskararen inguruko zehaztapenak daudela, "ondo zaindu beharrekoak". Langile asko ibiltzen da errehabilitazioko solairuan, eta liburutxo bat dute zehaztasunak emateko: "Atzeko orrian euskararen inguruko azalpenak daude, eta haiei erreparatzeko esaten diegu".

Euskararen erabilera ez dute sarri eskatzen erabiltzaileek. Askotan, ezjakintasunagatik. Hala ere, Zuloagak azpimarratu du balorazio oso ona egiten dutela behin zirkuito elebiduna azaltzen zaienean: "Aurreiritziak egon badaude, eta jakingo balute euskaraz egiteko aukera badutela, gehiago eskatuko lukete". Lauak bat datoz zirkuituari ekin diotenetik euskara gehiago erabiltzen dela baieztatzean: "Zirkuitua oso detaile txikiek osatzen dute, baina aldaketa erabatekoa da", amaitu du Esnaolak. n

“Benetan sinetsi behar dugu ikasteko beste modu batek emaitzak ematen dituela”

Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa argitaratu du Hik Hasi Euskal Heziketarako egitasmoak, urtebetez hainbat aditurekin batera burututako gogoetaren ondorio. Hezkuntza hobetzeko hamar gako bildu dituzte bertan eta aitzakia horrekin mahai-ingurua egin dute Mondragon Unibertsitatean. Hona saioak eman duenetik hainbat puntu interesgarri.

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Hiru oinarri ditu Hik Hasiren proposamenak: hezkuntzak finantzaketa eta esku-hartze publikoa izan behar du, ikastetxe bakoitzak autonomoa izan behar du, eta ezinbestekoak dira hezkuntza-eragileen arteko lankidetza, gertuko administrazioaren inplikazioa eta herriko gainerako eragileen partaidetza. Gehiagorako eman du eztabaidak, Ane Ablanedo (Baionako Unibertsitatea), Nerea Alzola (Huhezi), Nora Salbotx (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) eta Xabier Sarasua (Hik Hasi) mahaikideen eskutik.

Haur Hezkuntzaren aitortza falta

“Bai ikuspegi klinikotik bai pedagogikotik, zenbat eta lehenago, orduan eta funtsezkoagoa da haurrari zein heziketa ematen zaion. Alegia, 0-3 adina garrantzitsuagoa da 8-14 tartea baino, eta zer esanik ez unibertsitatean gertatu ahal zaizun edozer gauza baino, txikitan gertatzen zaizunak eragin handiagoa baitu. Zentzu horretan, haur eskolan dauden hezitzaileen lana askoz garrantzitsuagoa da, unibertsitatean irakasle dagoenarena baino. Gizartean ordea, kontrakoa nagusitzen da: dituzten lan baldintzak okerragoak dira eta duten aitortza askoz txikiagoa”, uste du Ablanedok.

Helburu ekonomikorik gabe ikasitako hizkuntzak

Txostenak dio ikasleak euskaldun eleaniztun bilakatu behar dituela eskolak. Kultur anitzetara zabalik dagoen euskara du buruan Salbotxek: “Hizkuntzak ikastea garrantzitsua da, baina ez gure gizarte globalizatu eta neoliberalak eskatzen eta inposatzen digun hizkuntzen ezagutzari erantzuteko (alegia, ez kapitalak motibatuta edo gure enpresa etorkizunean deslokalizatu daitekeelako), norbanakoen premiei eta pertsonaren garapenari erantzuteko baizik; harremanak izateko, komunikatzeko. Horregatik, hizkuntza horrek ez du zertan ingelesa, alemana edo txinera izan, nire bizilagunaren hizkuntza gutxiagotua izan daiteke. Finlandian esaterako, planteamendu malgua dute: edozein lekutatik etorkinak datozenean, ikasle berriari galdetzen diote zein den bere ama-hizkuntza, eta hiruzpalau haur baldin badituzte hizkuntza hori dutenak, hizkuntza horretako maisu-maistra bidaliko dute eskolara. Ama-hizkuntzan eta bertako hizkuntzan gaitasun maila ona lortzea eta batetik bestera gertatzen diren trantsizioak baloratzea dute abiapuntu”.

Nolako irakaslea nahi du ikasleak?

Alzolaren esanetan, irakasle onak behar du “kanpokoa eta norberaren burua zalantzan jartzeko gaitasuna; pentsaera dibergentea suspertzeko eta galderak egiteko gaitasuna. Irakasle ona da orientabideak ematen dituena, pertsona bakoitzak bere burua ezagutzen eta garatzen laguntzeko, eta giza-komunitatea osatzen laguntzeko”. Irakasleen jarrera ere ezinbestekotzat du, “aldaketak egin ditzakegula sinestea”.

Salbotxek gehitu du ikasleei eurei galdetzea ere baliagarria dela. Unibertsitateko bere ikasleei galdetu die, eta haientzat irakasle ona da “bere lanarekiko pasioa sentitzen duena eta horrekin emozionatzeko gai dena, hala besteak motibatzeko gai izango delako”. Ume diren ikasleei ere galdetu diete, eta zerrenda ekarri du Salbotxek: irakasle izan nahi duen horrek “haurren izenak jakin beharko ditu, aldika errieta egin beharko digu, olerkiak idatzi beharko ditu, gurasoei gure sekretu zenbait kontatu beharko dizkie, dantzan eta kantuan aritu beharko du, lan politak egiten eta ipuinak kontatzen jakin beharko du, triste dauden haurrak animatu beharko ditu, haurrak erlaxatzen lagundu beharko du, eta haiekin egunero-egunero hitz egin beharko du”. Eskari xumeak lehen begiratuan, “baina banaka aztertuko bagenitu, izugarri sakonak direla iruditzen zait”.

Sar dadila haizea eskolan

Herri-hezitzaileen ideia ere Hik Hasiren proposamenaren oinarri-oinarrian dago. Salbotxen hitzetan, “ikastetxearen inguruan badago jendarte bat, badago mundua ikusteko era bat, hizkuntza praktika batzuk... Jakintza handia dago, baina jakintza horretatik guztitik

» **Ane Ablanedo:**
"Haur eskolan dauden hezitzaileen lana askoz garrantzitsuagoa da, unibertsitateko irakasleena baino. Lan baldintza okerragoak eta aitortza askoz txikiagoa dute, ordea"

Ezker-eskuin, Ane Ablanedo, Nerea Alzola, Xabier Sarasua eta Nora Salbotx.

zati bat irakasten da eskolan, nork dio zer den irakatsi beharrekoa? Goazen eskoletako paretak botatzera eta haizea sartzen uztera". Ablanedorentzat, "paradigma aldaketak ekarriko du hori. Eskola ez da ikastegi bakarra: ebidentzia bat da, baina iraultzailea ere bada, zeren adibidez ikusten dugu ume bat eskolara joaten ez dena eta pentsatzen dugu ez duela ikasiko. Baina ikastea baldin bada gauza bat berez egiten duguna, ezin da ez-ikasi. Eta modu askotan ikasten dugu, eskolan eta eskolatik kanpo. Eskolak bizitzan integratu behar ditugu, eta horrela irudikatuko dugu hobeto zer den hezkuntza komunitate bat".

Eskola libreak, perretxikoen pare

Egun dugun hezkuntza sistema aintzat hartuta, egingarria al da horrelako proposamen bat? Sarasuaren arabera, konfiantza da gakoa, "guk geuk ez badaukagu konfiantzarik, gainerakoei ere ez baitiegu erakutsiko konfiantzan hezten. Batzuetan kosta egiten zaigu gauden *confort* egoeratik ateratzea, gure lubakietan gotortzen gara, eta inertziak apurtu eta aurrera egiteko hitz egitea, eztabaidatzea eta konfiantza izatea da bidea. Gure proposamena ez da lege artikulatu bat, norabide bat baizik".

"Hezkuntza sistematik kanpo dauden eskolak perretxikoak bezala ari dira sortzen, eta horrek zerbait adierazten du –azpimarratu du Ablanedok–. Ikastolekin gertatu zen bezala, nago bigarren itzuli baten atarian ez ote gauden, hausnarketa eta gauza berrien peskizan. Hori guztia egituratu beharko genuke, borondatea, interesa eta ezinegona egon badaudelako". Sarasuak gogoratu duenez, eskola berritzaileago horiek beste hainbat herrialdetan badute lekua hezkuntza sisteman, "baina hemen ez, eta sistemari dagokio irekitzea eta aniztasun hori ere hartzea".

Publikoko entzule batek, ordea, zail ikusten du hezkuntzaren paradigma aldaketa. Nola hezi bestelako konpetientzietan, Selektibitatea edo Baxoa bezalako azterketarako prestatu behar baditugu ikasleak? "Ikasleak mamu horretarako prestatu behar ditugula saltzen digute, baina sistemak jartzen dizkigun muga eta traben aurrean, apurtu ezin baditugu, ikasi behar dugu gutxienez ziria sartzen: pasa behar bada, pasako dugu, baina Selektibitatea hilabete batzuetan prestatu daiteke, eta aurreko denbora guztian beste gauza batzuk emango ditugu. Eskola libreetan aritzen diren asko eta asko gero unibertsitatera joaten dira, edo lehenago institutura egiten dute jauzi; azterketa horretarako prestatzen dira une jakin batean eta kito", erantzun du Ablanedok.

Zein ikasle dago prestatuago?

Publikoko entzuleak, baina, ez du hain argi. Haren esanetan, Selektibitateko edukiak barneratzeko gaitasun handiagoa izango du hezkuntza tradizionalean formatu den ikasleak, bestelako konpetentzia eta baloreak barneratu dituenak baino. Ablanedo ez dago ados: "Ez nago hain seguru lehenak trebeagoak izango direnik. Benetan sinetsi behar dugu ikasteko beste modu batek emaitzak ematen dituela eta konpetentzietan hazi denak ahalmen handiagoa izan dezakeela, baita etsamina hori bera egiteko ere. Lehenak trebezia handiagoa izango du beharbada azterketa mota horretan, ezaguna zaiolako, baina beste gaitasun batzuk itzaliak izan ditzake, halako probei aurre egiteko ere garrantzitsuak izan daitezkeenak. Eta azken finean, sakonean apustu egin behar da: demagun hezkuntza tradizionala jaso duen ikaslea trebeagoa dela azterketa gainditzeko, baina zein preziotan? Zenbat gauza inportante utzi ditu bidean? Bizitzaren aurrean hartu nahi dugun jarrera erabaki eta horren aldeko hautua egin behar dugu".

Eskola alternatiboez izan da entzuleen artetik egin duten azken galdera. Bai, bestelako hezkuntza bat dute oinarri, "baina ez dira doakoak, eta ideiekin ados egon arren, elitista bilakatzen dira sarri". Ablanedok hartu du hitza: "Nik ere nahiko nuke denentzat izatea horrelako eskola eredua, eta uste dut gakoa dela hain juxtu proiektu hauek sortzen dituztenek ere hori bera dutela helburu, borondate publikoa dutelako, ez elite bat sortzeko borondatea; ez dago diru-asmorik eta familientzat garestia den arren, hor lan egiten dutenek oso gutxi irabazten dute". n

Deustuko emakumeen trainerua, txanpa bikaina hartuta

Zortzi urte igaro dira 56 emakume bildu, arraunak estropuetara heldu eta emakumezkoen lehenengo traineru ligari hasiera eman ziotenetik. Ordutik urtero errepikatu da, eta hasiera batean lau traineru osatu ahal izatea zaila izan bazen ere, gero eta neska gehiago ari dira arraunak hartzen. 2017ko udako traineru ligan, Euskal Herriko bederatzi arraun elkarte izan dira lehian: Donostia Arraun Lagunak, Hernani, Hibaika, Kaiarriba-Donostiarra, Lea-Artibai, Orio, Portugalete, San Juan eta gaurkoan hizpide dugun Deustu Arraun Taldea.

Ainhoa Ortega Bretos
@ob_ainhoa
ARGAZKIA: IKER CORTÉS

Deustu Arraun Taldea 1981ean sortu bazen ere, 2015-2016 denboraldian itsasoratu zuten trainerua lehenengo aldiz klubeko emakumeek. Urria aldera hasi ziren entrenatzen, eta Deustuko hamar arraunlari, Portugaleteko hiru, eta Kaiku, Iberia eta Ondarroako beste hirurekin osatu zuten ontzia. Izan ere, gogoa eta nahia funtsezkoak izan arren, ez dira nahikoa traineru bat aurrera atera ahal izateko. Lehenik eta behin jendea behar da; ontzi barruan arraunean arituko diren hamahiru lagun, patroia, eta denboraldian aldaketak egin ahal izateko beste hainbat arraunlari.

Trainerua osatu duen lehenengo talde bizkaitarra izan da Deustu, lehenago Bizkaiko selekzioko ontzia aritu izan bada ere. 2016. urteko udan zazpigarren egin zuten Gipuzkoako Ligan, baita Kontxako Estropadetan ere. 2017ko denboraldian, aldiz, apur bat goraxeago egin dute Ligako sailkapenean eta seigarren postua lortu dute. Horrez gain, txapeldunak izan dira Bizkaiko Traineru Txapelketan eta Kontxako Bandera jokatzeko sailkatu dira berriz ere, zortzigarren postua lortuta.

Datorren denboraldiari begiratzeko goizegi dela diote bogalariek, orain-dik hilabete asko falta baitira lehiatzen hasteko. Dena dela, egun, hogeita bat emakume inguru ari dira Deustun entrenatzen. Horietatik batzuk ibiliak dira lehenago beste arraun taldeetan, Aiala Uribelarrea esate baterako. Antzinako sardineren bidea hartuta, Nerbioi errekа gurutzatu du Uribelarreak ertz batetik bestera, Santurtzikoa baita bera.

Dioenez, gurasoengandik jaso zuen bereziki zaletasuna, eta hamaika urte zituela hasi zen arraunean. 25 urte ditu orain, eta patroi lanetan dihardu Bilboko taldean. Ikasketak, lana eta entrenamenduak uztartzeko "zoratu" egiten dela aipatu du. Izan ere, zenbat ordu entrenatzen dute arraunlariek egunean? Zenbat egun astean? Zenbat hilabete urtean?

Astean sei entrenamendu-saio

Urriaren amaiera eta irailaren hasiera bitartean entrenatzen dute Deustuko emakumeek, hamar hilabete eta erdi inguru, astean sei egunetan. Laura Cuesta arraunlariak azaldutakoaren arabera, neguan bakoitzak ahal duen ordutegian egiten ditu aste barruko entrenamendu fisikoak, Zorrotzaurren duten lokalean. Asteburuetan, aldiz, goizetan elkartzen dira denak trainerua uretara ateratzeko.

Berak ez du arazo handirik ordutegiak moldatzeko, Bilbon bizitzeaz gain, ikaslea delako. Hortaz, arratsaldeak, asteburuak eta udako hilabeteak libre izaten ditu arraunean aritzeko. Beste hainbaten kasuan, aldiz, ez da horren erraza izaten, eta laneko ordutegi eta oporrekin uztartu behar izaten dituzte entrenamenduak. Horrez gain, gehienak Bilbo aldean bizi badira ere, zenbaitek joan-etorriak egin behar dituzte egunero.

Dena den, eta gutxieneko arraunlari kopuru bat izatea ezinbestekoa bada ere, beste gauza batzuk ere beharrezkoak dira traineru bat osatu ahal izateko, hala nola, dirua.

"Gure ligan ez dugu ekonomikoki saririk jasotzen"

Hainbat gauza erosi eta ordaindu behar dira ontzia aurrera eramateko. Lehenik eta behin, trainerua. Ontzi motaren arabera, prezioa desberdina izango da. Egun gehien erabiltzen den ontzia Orioko Amilibia enpresak egiten duen "Platanito" izenekoa da, eta 40.000 euro inguru balio ditu, hainbat arraun elkartek zabaldutako datuen arabera.

Noski, zifra horri beste hainbat gastu ere gehitu behar zaio. Esaterako, arrau-

nak, bidaiak, entrenatzaileak, instalazioak, eta ontzia alde batetik bestera eramateko beharrezkoak diren furgoneta, orga eta bestelakoak. Deustuko emakumeen kasuan, orain arte erabili duten materiala klubak zeukan aurretik, baina datorren denboraldirako arraun berriak erosiko dituztela azaldu digute bogalariek.

Hori guztia finantzatzeko bazkide eta babesleen diru-laguntzak jasotzen ditu klubak. Emakume arraunlariek, aldiz, ez dute apenas dirurik jasotzen. Gizonezkoen liga guztietan daude sari ekonomikoak, baita emakumezkoen liga nagusian (Euskotren Ligan) ere, baina Deustuk orain arte jokatu duen ligan ez dago horrelakorik. Hortaz, Kontxako Banderan sailkatzeagatik besterik ez du dirurik irabazi klubak. Zehazki, 5.000 euro jaso dituzte 2017an, arraunlari guztien artean banatzeko.

Dena dela, horrek ez du kezka handirik sortu Deustuko arraunlarien artean, azaldu dutenez, baliabide ekonomiko eta materialez haratago dauden gauzengatik ari baitira arraunean.

Harreman-sarea eta adrenalina dosia

Arrauna kirol gogor eta zorrotza dela esaten du hainbatek. Denbora eta borondatea behar direla praktikatu ahal izateko. Diziplina eta burugogorkeria eskatzen ditu ezinbestean, dieta zaintzea, eta erabateko jarraikortasuna. Hala ere, gero eta gehiago dira antzinako Pasaiako Bateleren lekukoa hartu eta arraunak astintzera animatu diren emakumeak. Zergatik? Zerk egiten du arrauna erakargarri?

Laura Cuestaren iritziz, jendea da garrantzitsuena, harremanak: "Deustuko traineruan talde bat sortu dugu denon artean, eta oso polita da talde horren parte sentitzea". Horrez gain, esfortzu eta sufrimendu handia eskatzen dituen kirola dela azaldu du, baina ordainetan ematen duena hori baino gehiago dela: "Estropada edo entrenamendu gogor bat amaitu ostean sentitzen duguna izugarria da, nekeza bezain gozoa da arrauna".

Aiala Uribelarrearen arabera, aldiz, mundutik "deskonektatzeko" eta "gozatzeko" modua da: "Egia da ordu asko igarotzen dugula entrenatzen, eta askotan pentsatu izan dudala zer demontre ari naizen arraunean. Baina ezin dut utzi, ez dakit zehazki azaltzen zer den ematen didana, adrenalina ikaragarria esango nuke. Oso kirol berezia da". n

BABESLEA: **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

Eman hegoak euskarari

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
www.bizkaia.eus

Vandenboschia speciosa iratzea

Gure erreketako altxor ezkutua

Ez; Euskal Herrian ez dugu klima tropikalik. Baina bai; baditugu iratze paleotropikalak, hezetasun handiko eta tenperatura ez oso aldakorreko guneak behar dituztenak. Horietako bat da *Vandenboschia speciosa*. Ezagutzen duenak bat egin lezake bere izen zientifikoaren esanahiarekin: *speciosum* "ederra", "itxura onekoa". Aldiz, bere edertasuna lehen aldiz aurkitu zuen botanikariaren subjektibotasunaren emaitza baino ez dela pentsa daiteke. *Vandeboschia speciosa* landare berezia, bitxia eta erakargarria dela, ordea, ezin inork ukatu; edo, ikusi al duzu inoiz iratze zeharrargirik zure inguruan?

Iñaki Sanz-Azkue
@sanz_azkue
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

"*Trés rare*"; oso arraroa omen zen iratze hau Euskal Herrian XIX. mendean. Hala esaten zuten behintzat aurreneko aleak aurkitu zituzten botanikariek euren artikuluetan. Biriatuko mendietan aurkitu zuen aurrena (1885an) Zeiller botanikariak. Eta amua bota zien beste botanikariei, inguruan gehiago izango zirela aipatuaz. Honela, urte gutxira (1898an), M. Michel Gandoger botanikariak *Bulletin de la Société Botanique de France* izeneko aldizkarian aurkikuntza baten berri eman zuen. *Trichomanes radicans* –egun *Vandenboschia speciosa* moduan ezaguna– izeneko iratzea aurkitu zuen Jaizkibelen: Pasaian eta Hondarribian. Artikuluaren hasieran adierazten duenaren arabera, Gipuzkoa ez zen *a priori* botanikari hauek erakartzen zituen lurraldea. Hau dela eta, dio, gutxitan bisitatua izan zela Andaluzia bezalako lurralde "exotikoen" aldean.

Behin bidea irekita, beste hainbat lekutan aurkitu zuten iratzea: 1904an, M. Daguinek –Baionako Lizeoko irakasle zenak– eta Zeiller berak, Laxia arroan, Txarraenia arroilan eta Bidarraien.

Dokumentu zahar hauek irakurrita, bada gaurkotasuna galtzen ez duen aipamenik. Izan ere, botanikari zaharrek iratzea aurkitu zuten guneei buruz egiten dituzten deskribapenek landarearen bizilekuaz, eta gaur egun ere bizitzeko behar dituen baldintzez pista asko ematen dizkigute.

Bailara ilunetan ere bada bizitzarik

Botanikariek idatzitako artikuluetan bailara sakon, arroila edo kobazuloez hitz egiten dute maiz. Izan ere, *Vandenboschia speciosa* iratzeak eremu subtropikaletan ematen diren baldintzak behar ditu bizirauteko: hezetasun handikoak eta tenperatura ez oso aldakorrekoak. Eta baldintza horiek, gurean, gune horietan betetzen dira: isurialde atlantikoko bailara itxietan.

Iraganean hedapen zabalagoa zuen espezie erliktiko honek, egun, basoz inguratutako haran sakonetan aurkitu du bere babesgunea; ibar-basoak errekako hezetasunari alde egitea oztopatzen dion lekuan. Toki horietan, izozteek kostata estaltzen dituzte erreka aldameneko arroilak eta harri arteko kobazulo txikiak, eta tenperaturak egonkorragoak dira urtean zehar. Hor aurkitzen du iratzeak bere txokoa; baldintza subtropikaletara gehien inguratzen den eremuan. Ezaugarri horiei, iratzeak azidotasun handiko lurzoruekiko duen joera gehitu behar zaie.

Euskal Herriko *Vandenboschia speciosa* iratzearen populazioak arduraz zaindu beharko genituzke. Iratzearen gunerik onenak Europan Azoreetan, Madeiran eta Kanariar irletan daude, bertako klima iratzearen oso aldekoa delako. Europa kontinentalean, ordea, iratzea kostaldera dago mugatua. Bretainia eta Britainia Handiko hainbat kostako lekutan aurkitu da, beti ere modu ez jarraian banatua. Europa barrualdean, gune jakin batzuetan baino ez da topatu. Euskal Herritik behera eginda, egoera ez da askoz hobea.

Iratzeak ezkutuan bizi nahi zuen baina…

Azken hamarkadetan Euskal Herrian egin diren iratzea bilatzeko ahaleginek fruituak eman dituzte, eta aurretik ezezaguna zen tokietan edo urria zela pentsatzen zen lekuetan ale berriak aurkitu dira. Laginketa sakonak egin diren lekuetan, Jaizkibelen eta Urumean esaterako, aurretik ezagunak ziren aleen kopurua 10 aldiz handitu da azken hamarkadan. Honek guztiak arrazoi bat du, ordea: mende honen hasieran Euskal Herrian ordura arte ezagutzen ez zen iratzearen sekreturik handiena aurkitu zuten bertako zientzialariek: *Van-*

Iratze zeharrargia

Erreka sakonen ertzeko harkaitzen zuloak, iluntasuna; hori da bere lekua. Oso landare gutxik jasango duen iluntasun horretan, argi izpi gutxi batzuk eskuratuz egin beharko du fotosintesia bizirauteko. Iluntasunean hazten den baldintza subtropikaleko landarea izatea gutxi balitz, bere hosto edo frondearen berezitasuna ere agerikoa da. Izan ere, zelula geruza bakarrez osaturikoak dira, zeharrargiak. Gardentasun puntu horrek emango dio ederra deitzeko hautua egin zuen botanikariari arrazoia. Alde horretatik "speciosum", espeziala baita. Argazkian, esporofito fasea.

*denboschia speciosa*ren gametofito fasea.

Iratzeak ezkutuan bizi nahi bazuen, alferrik du dagoeneko. Iratze guztiek bere bizi-zikloan zehar bi fase, bi gorputz ezberdin eduki zitzaketela jakina bazen ere, Euskal Herrian *Vandenboschia speciosa*ren "iratze itxurako" fasea soilik ezagutzen zen, esporofitoa. Ordea, bada beste fase bat, iratzeak erabat bestelako itxura duena: gametofito fasea. Fase honetan, iratzeak goroldioaren antza hartzen du, zailagoa da ezagutzen, txikiagoa da, eta hori gutxi balitz, erreka ertzeko zulorik ilunenen barrualdean ezkutatzen da askotan, ia ikusezin bihurtuz.

Vandenboschia speciosak bailara heze eta itxiak ditu gustuko.

Gametofito fasea Euskal Herrian aurkitu zen lehendabiziko egunetik, ordea, garbi ikusi zen hortik aurrera iratzea leku gehiagotan ere aurkitzeko aukera zegoela. Izan ere, Euskal Herrian, beste leku askotan ez bezala, iratzea bere bizi-zikloko bi faseetan aurkitu daiteke, bi gorputz ezberdin izango balitu bezala, eta biek gainera, bizileku ezberdinak erabili ditzakete, iratzearen biziraupenerako abantaila handia izanik. Iratzearen gametofito fasea ezagutzeak, beraz, bide berri bat ireki zuen Euskal Herriko botanikarientzat. Ordutik, *Vandenboschia speciosa*ren ikerketan ari den Aranzadi Zientzia Elkarteko lantaldeak ezagutzen ez zen lekuetan aurkitu du garoa. Urtero-urtero, aurretik ikusi gabeko lekuren batean azaltzen da oraindik ere.

Konplexutasun hau guztia dela eta, eta Euskal Herriko errekek ematen duten ikerketarako aukera bikaina baliatuta, Granadako Unibertsitateko Víctor Suárez doktorearen taldea Jaizkibelera eta Urumeara etorri zen 2012an, iratze honi buruz egiten ari diren Europako ikerketa genetikorako laginak hartzeko. Euren esanen arabera, bertako populazioek garrantzi handia izango dute ikerketan.

» Iratze honi buruz martxan den Europako ikerketa genetikorako, Jaizkibel eta Urumean hartutako laginak garrantzitsuak izango dira

» Euskal Herrian, beste leku askotan ez bezala, iratze hau bere bizi-zikloko bi faseetan aurkitu daiteke: gametofito eta esporofito faseak

Erreka ertzeko basoak zaindu ezean, zaurgarri

Europan babestua dagoen espezie honek jasan ditu mehatxuak ere. Irlandan, adibidez, ia desagertzear izan zen bildumazaleek euren herbarioetarako jaso zituztelako. Euskal Herrian, ordea, mehatxuak bestelakoak dira. Basogintza gogorrenek eragindako erreka ertzeko basoen mozketek edo eta arro oso batean egindakoek kalteak sor ditzakete, babesa kentzen dietelako eta izozteen aurrean zaurgarriago bihurtzen dituztelako. Urumeako arroan egindako modelizazio lanek ere, ez diote etorkizun ona aurreikusten espezieari. Eta klima aldaketa etsai gogorra izan daiteke hezetasun maila altua eta tenperatura egonkorrak behar dituen espeziearentzat.

Naturak eman digun bitxikeria honek gure artean jarraitzea nahi badugu, erreka ertzeko basoak ondo mantentzea, edo eta berreskuratzea da prebentziorik onena. Landare hau bilatzen lan egiten dugunok, bestalde, Europako ikerketa genetikoaren emaitzen zain jarraituko dugu, bitartean, ale berrien bila erreka ilun eta malkartsuetako pareta hezeetan begiak irristatzeko aukerarik galdu gabe. n

Apartheida da Trumpek Israelgo hiriburu izendatu duena

AEBetako Gobernuak Jerusalem izendatu du Israelgo hiriburu. Sionistek hiria bortxaz okupatu (1948) eta anexionatu (1967) zutenetik, lehen mailako aurreneko aitortza ofiziala da. Israelek salbuespen legedia ezarri du Jerusalemen, palestinarrak ez daitezen inoiz izan biztanleriaren %40 baino gehiago.

EGUBERRIAK **DEBEKATUTA**

Nagore Irazustabarrena Uranga
@irazustabarrena

Londres, 1643ko abenduaren 19a. Ingalaterrako Parlamentuak ordenantza bat jarri zuen indarrean, Eguberriak ospatzea debekatzen zuena. Ingelesak ordurako zatituta zeuden parlamentuzale eta erregezaleen artean, anglikano berri eta katoliko zaharren artean, eta neurriak zatiketa areagotu besterik ez zuen egin.

Baziren 100 urtetik gora Henrike VIII.ak 1534an Erromako elizarekin hautsi zuela. Elisabet I.a alabak Ingalaterrako eliza finkatu eta sendotu zuen, eta, hala ere, gizartea ez zen bat-batean anglikano bihurtu. Baina XVII. mendearen erdialdean Parlamentuko ordezkariak gero eta gehiago urruntzen ari ziren katolizismotik eta, Oliver Cromwell buru, puritanoen korrontea indarra hartzen ari zen. Azkenean, parlamentariek Karlos I.a erregea exekutatzea lortuko zuten 1649an. Baina ospakizun katolikoei sei urte lehenago moztu nahi izan zieten burua.

Puritanoek gogor kritikatzen zituzten eliza katolikoaren gehiegikeriak eta erlijioa aszetismoz eta inolako luxurik gabe praktikatzea bultzatzen zuten. 1643ko legearen arabera, herritarrek Eguberrietan "umil jokatu behar dute, gure bekatuak eta gure arbasoenak gogoan izanda, Kristori omen egitea aitzakia, egun hauetan Jauna erabat ahaztu eta haragizko gehiegikeria sentsualei bide eman baitiete".



ROBERT WALKER / T. HORTON

Ezkerrean, Oliver Cromwell (1599-1658), Eguberria ospatzeko debekuaren bultzatzaile nagusia. Eskuinean, "Eguberrien errebindikazioa" izeneko panfletoa, 1653an inprimatu eta banatu zutena, debekuaren kontra egiteko.

1644an, ordenantza berresteaz gain, Pazkoko eta Mendekosteko ospakizunak ere galarazi zituzten. Debekuak indarrean jarraitu zuen 1660an monarkia berrezarri arte. Erregezaleek Eguberrietako ospakizunak baimentzearen alde egin zuten, baina, historiagile gehienen arabera, eguberrizaleak izan ziren estuardotarren kausa indartu zutenak, eta ez alderantziz.

1643an bertan liskarrak egon ziren, hilaren 25ean negozioen ateak zabaltzea erabaki zuten dendariei eraso zietenean. Baina istilu larrienak 1647an izan ziren Londres, Ipswich, Norwich eta bereziki Canterburyn. Eguberria publikoki ospatzeaz gain, orduan ere, dendei gogor eraso zieten. Nork pentsa gerora Eguberriak eta dendak eskutik hain ondo helduta joango zirela. n

T. BRACK ARTXIBOA

Eiffel dorrea, publizitate panel ikusgarria

1925etik 1934ra, Parisko dorrerik ezagunena Citröen auto markaren publizitate panela izan zen. Monumentuaren lau aldeetatik hirutan zeuden zazpi hizkiak jarrita; goitik behera 30 metro baino gehiago hartzen zituzten. Guztira, 250.000 bonbilatik gora pizten ziren egunero ilunabarrean auto enpresaren izena lau haizetara –edo hirutara behintzat– zabaltzeko. Dorretik 30 kilometrora ere irakur zitekeen mezu sinplea. Markaren garrantzia nabarmendu eta argindarra xahutzeaz gain, kartel erraldoiak zerbitzurik ere eman zuen. 1927ko maiatzean, Charles Lindberghek Atlantikoa hegazkinez zeharkatu zuen lehenengoz. 33 orduko hegaldiaren ondoren, Citroënen kartela erabili zuen erreferentziatzat orientatu eta Parisen lur hartzeko. n

zenbat gara elkartea

Done Bikendi 2 - 48001 Bilbo
Telefonoa: 94 423 75 91
E-posta:
bulegoa@zenbatgara.eus

hamaika bide

- kafe antzokia bilbo
- gabriel aresti euskaltegia
- gazteola haur eta gazteak
- algara konpartsa
- kurkuluxetan umegunea
- itzulpen zerbitzuak
- bakaikuko etxea
- bilbo hiria irratia 96 fm (interneten ere entzungai)
- erroa argitaletxea
- atoan komunikazioa
- gabriel aresti kultura elkartea

hamaika aukera

www.zenbatgara.eus

kafe antzokia www.kafeantzokia.eus · Gabriel Aresti euskaltegia* · Gazteola* Haur eta Gazteak · algara konpartsa · kurkuluxetan kultura elkartea · bilbatu* [servicios de euskara zerbitzuak] · Bakaikuko Etxea · BI-96.0-FM Bilbo-Hiria irratia · Erroa argitaletxea · Atoan! komunikazioa · GABRIEL ARESTI KULTURA ELKARTEA

Lurrak maniatzen

Jakoba Errekondo
jakoba@bizibaratzea.eus

Urteko egun motzenean neguan sartu gara eta dagoeneko, urtea amaitzerako, hiru minutu eta erdi luzatu da eguna. Konturatzerako, urtarrila amaitzerako, ordubete eskas luzatua izango dugu egunaren argia. Guretzat urtarril hasieratik amaierara hotz eta iluna izango da, baina landareen azalean jartzen bagara izugarria da: bederatzi ordu beharrean hamar ordu argi izango dute. Argia da landareen erregaia, hostoetako motorrean bere bizitza ahalbideratzen duen energia bihurtzen dutena. Energia hori eskuratzeko egunero %12,5 argi gehiago.

Jar gaitezen bada landarean azalean. Neguak landare askoren kemenak piztuko ditu eta urte osoan itzaltzen ez den loraldi saila suspertu egingo da. Loratzeak ederki laburbiltzen du landareen grina hori. Lorea zabaltzerainoko eta horrek ondoren hazi eta emango dituen fruitua eta haziak ekartzerainoko bidea elikatzeko ez du jaki gutxi behar landareak. Horretan pentsatzea da bere azalean jartzea. Elikagai horiek edo iaz atetutako erreserbetakoak edo zuzenean lurretik sustrairatutakoak, edo bietakoak izango dira.

Lurreko horiei tira nahi diet. Lurra hotza dago orain, baina ez hila. Eta landareen lurgainekoa esnatzeko, lurpekoa mugitu behar. Lurpe hori da kakoa. Lurraren biziari eutsi eta ahal bada bizkortzeko txanda da. Udazken amaiera eta negu hasiera, azaroa, abendua eta urtarrila.

Lurrari on nola egin, hori da helburu nagusia. Ongarriketa, alegia. Neguan barrena lurreko bizitza, mikroorganismoen dantza berpizteko beroki eta jaki eman behar diogu. Horretarako eragingarriak diren bakarrak ongarri organikoak dira, bizidun izandako zatiak, alegia: orbel, gorbel, lasto, belar, garo, azal, ezpal, pats, zohikatz, errauts, zirin, simaur, luar, ile, luma, adar, hezur, odol, gorpu...

Eman lurrari horietatik lodi, jaso eta jan dezan, gero geuk jaso eta jan nahi badugu. Eman eta hartu. n

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Etxe inguruan 4-5 sagarrondo ditugu. Noiz inausi behar dira?
Larraitz Aurrekoetxea (Elorrio)

Kaixo Larraitz. Sagarrondoa inausi behar duzun edo ez erabaki behar duzu lehenengo.

Nahikoa tokia badute eta ez badute ez beraien artean ez ingurukoei enbarazurik egiten ez nituzke inausiko. Errazago biziko dira, hobeto, eta fruitua urte gehiagotan emango dute.

Hala ere inaustea erabakitzen baduzu, martxoko ilbeheran egin.

ECOSEGELL

Nekazaritza ekologikoa eskolan lantzeko jolas digitalak

Garazi Zabaleta
@tirikitrann
ARGAZKIA: TTAK KOLEKTIBOA

Ecosegell izeneko proiektua jarri du martxan Kataluniako Nekazaritza Ekologikoko Produkzioaren Kontseiluak (CCPAE). Eskoletan nekazaritza ekologikoaren oinarriak eta elikagai ekologikoen etiketa moduak ikasteko hezkuntza-baliabide digitala da Ecosegell, 10-14 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua bereziki. Jolasen bidez gaiok lantzea eta gazteengandik gizartera zabaltzea du asmo proiektuak.

Ekimen berritzailea

Vida Sana elkartearekin batera sortu du kontseiluak proiektu pedagogikoa, Espainiako estatuan sortu den modu horretako lehenetarikoa. Hiru jolasek osatzen dute material digitala: produkzio ekologikoaren gaineko galdeketa erantzutea da lehenengo pausoa, elikagai ekologiko baten etiketa sortzea bigarrena, eta elikagaiokin sukaldean egiteko ariketa azkenekoa.

Proiektuaren helburu nagusia nekazaritza ekologikoaren oinarriak irakastea eta osasunarekin eta ingurumenarekin errespetuzko jarrera eta balioak bultzatzea dela diote bultzatzaileek. Gazteek ikasitako kontzeptuak etxera eraman eta bertakoak gaiaren inguruan "kutsatzea" espero dute gainera.

Gazteentzako materialaz gain, irakasleentzako gida ere osatu dute ekimenaren sortzaileek, gaiaren inguruko eduki teorikoetan sakontzeko. Ikerketarako eta informazio bilaketarako ariketa pare bat ere proposatzen dizkiete irakasleei gida horretan.

Edonorentzat eskura eta dohainik

Bereziki lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta egonik ere, bitartekoa eskolatik kanpo erabiltzeko aukera ere eman nahi izan dute bultzatzaileek. Horregatik jarri dute www.ecosegell.cat webgunean materiala eskuragarri, edonor sartzeko moduan, libre eta doan.

Lehenagotik bazuten sortua hainbat hezkuntza-material Katalunian, baina horiek zaharkituta gelditzen ari zirela ikusita jarri du CCPAEk proiektu berria martxan. Eskoletan nekazaritza ekologikoari eta jasangarritasunari lotutako gaiak modu atsegin eta entretenigarrian landu daitezkeela erakusten duen beste adibide bat da hau. n

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Abenduak 28: Zeanuri
18:30ean Kultur Etxean *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 29: Ormaiztegi
18:00etan Zumalakarregi Museoan *Altza Porru* Komikhitzaldia eta kontsultategia, Jakoba Errekondoren azalpenak eta ilustratzaileen zuzeneko irudiekin.

Urtarrilak 9: Usurbil
16:00etan Esperientzia Eskolan *Landareak Lantzen* agendaren aurkezpena eta kontsultategia.

Urtarrilak 26: Durango
19:00etan Euskal Museoan Lurra gaiaren inguruan Jakoba Errekondoren hitzaldia, *Hitzez eta Ahotsez 2018* egitasmoaren barruan.

Urtarrilak 27: Durango
11:30ean Berdeago Azokan, Jakoba Errekondoren hitzaldia eta kontsultategia.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN
edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO
www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikuluak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: **bizibaratzea@bizibaratzea.eus**



Aurrerantzean, ARGIAren Azoka izango dugu orri honetan

Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

ARGIA Jendearen arteko harremanak bultzatzen ditugu astero elkarren ondoko orri hauetan. Pare bat urtez, herri mugimenduek eta gizarte eragileek argitaratutako produktuak zozkatu ditugu ARGIAko kideen artean, gure komunikazio proiektuaren balioekin bat zetozelako, "indartu dezagun indartzen gaituena" filosofiari eutsiz.

Zer da Azokaren kontu hori?

Abenduaren 4an berritu genuen argia.eus webgunea, eta geroztik ARGIAren Azoka dugu bertan (webgunearen goiko lauki beltzean aurkituko duzu erraz). Aukera ematen du oso modu errazean edozein herri mugimendu, eragile, enpresa edo norbanakok bere ekoizpenak bertan salgai jartzeko, baita bigarren eskuko gauzak ere. ARGIAk eginiko salgai denak ere bertan daude eskuragarri.

Zergatik jarriko dut zerbait salgai ARGIAren Azokan?

Zer ematen du ARGIAren Azokak, beste saltokietan ez dagoena? Batez ere, Euskal Herri osoan balio batzuen bueltan astekari eta webgune baten bidez harremana duten milaka herritarrek osatutako komunitatera iristea, euskaraz. Salgai jarritako gai horiek ezagutzera ematea. Eta Interneten saltzeko leiho bat izatea. Praktikak esango du, baina aukera ona izan daiteke eduki oso interesgarriak izan arren, zabaltzeko eta saltzeko baliabide gutxien duten eragileentzat. Esaterako, autoekoitzitako gaientzat, tokian tokiko salgaiak Euskal Herrira zabaltzeko, halako lan-ildori lotutako materiala beste esparruetako jendeengana ere helarazteko, norberak etxean egiten dituen produktu eta zerbitzuak ARGIA Jendearen artean saltzeko...

ARGIAk zer ateratzen du Azokatik?

ARGIA Jendea gure artean informazioa partekatzetik beste truke mota batzuetara pasatzea. Hori bera ez da gutxi. Horrez gain, saltzen den produktu bakoitzeko ARGIA proiekturako izango da %15a –ARGIAren webgunea erakusleiho huts den kasuetan– edo %25a –ARGIAren webgunea erakusleiho izateaz gain, ARGIAk banaketa egiten duenean–.

Zer joango da astero orri honetan?

ARGIAren Azokan salgai dauden produktuak erakutsiko ditugu, astero lauzpabost. Azoka hasiberria bada ere, 25 produktu daude jada, era guztietakoak: mahai-jolasak, egutegiak, jantziak... eta epe motzean gero eta gehiago izatea desio dugu.

2018an dirurik gabe ere eman edo hartu ere egingo dugu Azokan

Diru bidezko salerosketa harremanaz gain, ARGIA Jendearen artean beste harreman mota bat ere sustatuko du Azokak: ARGIA kideei zerbait emateko aukera. Komunitateak eskura jartzen digunetik zerbait hartzeko aukera izango dugu, inolako trukerik gabe. Eman eta hartu, bakoitzak garaian garaian behar edo desio duena. Komunitateak eusten baigaitu ARGIA Jendea. n



ADUR

Lagun ezezagun hori

Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Uste dut noizbait hitz egin dizudala Ametzagaña taldeaz, ezta irakurle? Bai, ziur naiz, 1980ko hamarkadako Egia hura, ARGIA, Antza, Adur, Iametza... Ametzagañaren lau ertzak. Baina Adur ez dut pentsatzen askotan aipatu dizudanik, eta badu berrikuntzarik gure lagun ezezagunak. Orain gutxira arte Lasarte-Oriako pabilioian ondoan izan dugunak txoko berria aurkitu du Hernanin.

Nire lehen galdera: zer da Adurrek egiten duena? "Garraio eta logistika softwareak egin eta aplikatzen dituen enpresa da", jaso dut erantzun modura. "Ufa, ez haiz oso abila hain gauza teknikoak ulertzen", esan diot neure buruari; eta irribarre atseginez adibide zehatz bat jarrita azaltzeko eskatu dut. "Portu batean, esaterako, itsasontzi bat heltzean dakarkien karga non utzi, zein biltegitara eraman, nola banatu eta abarretarako programa informatikoak dira". Eta orain hobeto kokatuta, jarraitu dut elkarrizketa.

Lasarte-Orian egin du bere ibilbidearen zatirik handiena Adurrek, esan bezala, ARGIAren, Antzaren eta Iametzaren ondoan; Ametzagañan bidelagun. Futbol taldean jokalari bakoitzak bere lana eginez taldea aurrera ateratzen den bezalaxe, hauek ere berdin: batek laguntza informatikoa eskaini, besteak app bat egin, hurrenak esku-orria inprimatu... eta denen artean aurrera.

Lasartetik Hernanira

Orain Adur Hernanira mugitzeak, baina, ez du harremana eten denik esan nahi. Nagusiki bi arrazoirengatik lekualdatu dira: batetik, handitzen ari da kooperatiba, eta txiki geratu zaie espazioa; eta bestetik, lantoki moderno, eroso eta egokiago baten beharra nabaritu dute, bezeroei harrera egiteko, enpresa berrantolatzeko... Baina Hernanin egonik ere Ametzagañaren parte izaten jarraituko du Adurrek, ez dute zalantzarik.

Bitartean, langileek ilusioz hartu dute aldaketa, kooperatiba denez erabaki-guneetan ere partaide izan dira, eta inplikatuta daude pauso berri honetan. Leku zaharra uztearekin batera lan egiteko hainbat molde zahar ere bertan utzi dutela azpimarratu dute, eta txoko berrian antolaketa eredu berriei heltzeko gogoz agertu dira. n

Hurrengo urtera arte!

Urtarrilaren 7ko data daraman astekaririk ez da izango. Urtea indartsu hasteko, astebeteko deskantsua hartuko dugu. Ziur ez zaigula irakurgairik faltatuko, eta etena eskertuko ere egingo dugula *Zuloan* liburua gozatzeko, *Landareak Lantzen* agendari ekiteko, irakurtzeko irrikaz geratu zitzaigun *Larrun* hura berreskuratzeko... Urtarrilaren 14ko astera arte, irakurle!

ARGIA Valentzian Euskararen Egunean

Valentziako (Herrialde Katalanak) Euskaltzaleok taldeak Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu du, urtero ohi duen bezala. Aurtengo egitarauan, haien ekimenez eta gure pozerako, ARGIAri txoko bat egin diote: proiektuari buruzko aurkezpena egin eta aldizkariaren hainbat ale kalera dute, ARGIAren komunitatea Valentziako euskaldunen artean zabaldu eta handitzeko asmoz.

Moltes gracies Valentziako Euskal Etxeko lagun guztiei, ARGIAri bultzada emateagatik; badakigu, urrun izanik ere, gure lana gertu jarraitzen dutela. Segi, orain arte bezala, 8. herrialdea euskalduntzen.

Abenduko sarituak

- **"Feminizidioa Euskadin eta Nafarroan" liburua:** Marian Goikoetxea Garralda (Iruñea), Javier Iraeta Narbaiza (Durango).
- **"Hernaniko eta inguruetako anfibioak eta narrastiak" liburua:** Antton Idiakez Korta (Ezkio-Itsaso), Roberto Kerexeta Zulaika (Elgoibar), Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo).
- **"Energia Transtsizioak. Piztu Aldaketa!" DVDa:** Ander Epelde Ezenarro (Soraluze), Arantxa Garmendia Lasa (Zaldibia), Aniturri Institutua (Agurain).
- **"Arrasateko kooperatibagintzaren erronkak de dilemak" liburua:** Tranpagarango udala (Trapagaran), Asier Zulaika Arrondo (Donostia).

Miren Narbaiza, MICE

"Talde inpertsonal eta plastifikatu asko dago"

Nahiago du taldean, baina bakarka ere arituko den Miren Narbaiza (Elgoibar, 1986) lan berria aurkezten ari da: *MICE*. Joseba Baleztena eta Ilargi Agirre izan ditu diskoan lagun. Berako Atala estudioan, Iñigo Irazoki grabazio arduradun, ondu dute zortzi kantaz osaturiko lana. "*Mice*" hitzak ingelesez "saguak" esan nahi du, eta lanak badu ilun horretatik.
Baita askoz gehiago ere: kritika oso onak jasotzeaz gain kontzertu ugari eskaintzen ari dira Euskal Herri osoan. Bere kanten hainbat letra jarri diogu hobe ezagutzeko.

Xalba Ramirez
@xalbaram
ARGAZKIA: MIKEL LARRATXE

Lander Arretxeak ARGIAn Napoka Iriari egin zizuen azken elkarrizketan esaten zenuen: "Lehenengo aldia da izango da ni bakarrik, nire buruarekin eta nire buruaren kontra ariko naizena".
Onerako eta txarrerako. Ikasi behar da norberarekin bizitzen. Ondo zaudenean oso ondo egon zaitezke, baina ez zaudenean indartsu jakin behar da neurtzen eta zure buruaren kontra ez egiten. Erabaki hori hartzen duzunean badakizu egun hobeak eta okerragoak edukiko dituzula eta ingurune atsegin bat sortzea zen aukera. Nik behintzat hori argi daukat. Bakoitzak gure buruarekin nahikoa daukagu, ingurukoak ez daitezen izan karga!

Horregatik bilatu duzu taldea?
Musikari onak lortzen saiatu naiz, baina lagunak ere bai. Lutxo [Neira] ez nuen hainbeste ezagutzen, baina banekien Joseba berarekin aritutakoa zela eta tipo noblea dela, eta Ibai [Gogortza], Ilargi eta Joseba lehenagotik ezagutzen nituen, eta musikari onak ere badira. Salto handia da bakarka egitea, eta denak behar du lagundu: talde barruan botere harremanik ez egotea, elkar zaintzea... Adibidez, entseatzera joaten garenean gustatzen zait ordu erdi hitz egiten egotea, jakiteko ondokoa nola dagoen hasi aurretik. Bestela energietan ere nabaritzen da, nor dagoen ahul, nor pozik...

"Hitzak barrenean gatibu" (*Ausardiarik ez*); "Ez eutsi barne orruei. Egon nadin adi diotenari. Gezurretik gutxi" (*Ez eutsi*). Ze paper betetzen dute zure letrek kantetan?
Diskoan nire bizipenak jasotzen dira, baina denboran bereizita daudenez, badago aldea. Zaharragoak ezintasunei buruz ari dira: ausardiarik gabe nagoela. Askorentzat letrak ilunak dira, baina nik ez ditut horrela ikusten, ez dudalako ikusten argitasunik ez duen iluntasunik. Ez naiz geratzen txarra den horretan. *Biziraun* kantan, adibidez, hasten naiz esaten nola iraganak lausotzen diren, baina gero bukatzen dut esaten hainbeste min jasan badituzu, beste gauza asko ere pasa ahalko dituzula, eta erlatibizatzen jakin behar dela.

"Ausardiarik ez, beldurrak gainezka" (*Ausardiarik ez*). Asko abestu izan diogu beldurrik ez izateari, baina kanta honek kontrakoaz hitz egiten du. Eta oso ausarta ere bada hori onartzea.
Ezin dut gezurrik esan, eta orduan horrela nengoen. Ez nintzen ausart sentitzen eta puntu, batzuetan hobe onartzea. Bestela beti diogu beldurra aldaketari eta etorriko denari. Ezkorra da, baina argi puntu bat gehitu nahi izan nion azken esaldiarekin: "Horrela jarraituko duzu maite, barrura begiratzen hasten zaren arte".

Bertigo pixka bat nuen diskoa kanta honekin irekitzeko, oso ezkorra zelakoan. Baina oso potentea gelditu dela uste dut. Gainera kanta hau gutxika hazten doa, perkusioa sartzen da, ebowak, bateria... eta beste ahotsa gehitzen da,

barruko bi ahotsen elkarrizketa izango balitz bezala.

"Iraganekoen islak ez dit uzten ikusten" (*Biziraun*). Derrigorrezko galdera, zer leku dauka Napoka Iriak disko honetan? Une batzuetan agertu egiten dela argi dago.

Bai, noski. Nik ez dut apurtu nahi ezerekin. Kantek beste norabide bat izan dute, baina oinarrian natorren tokitik nator, eta Napokak nire bizitzan izugarrizko lekua izan du. Oso pozik nago pasa den guztiarekin, amaitzeaz, eta berriro hasteaz. Napoka Iria aztarna eder bat da MICEn.

Moldaketek Josebaren Baleztenaren ukitu kosmikoa dute. Nola izan da sormen prozesua?

Kantak bakarrik egin nituen hasieran eta hortik dena egokitzen joan gara. Josebak izugarrizko lana hartu du diskoa ekoizten eta kanta bakoitzari norabide bat edo beste eman dio. Oso polifazetikoa da, rocketik une intimistak lortzeraino. Batzuetan hasierako ideiatik oso hurbil aritu da, beste batzuetan asko urrundu gara… Kantak asko hazi direla esango nuke. Asko jolastu dugu atmosferak sortzen. Efektuak ahotsetan, distortsioak baterian, fondoko soinuak... apropos bilatu ditugu soinu kosmiko horiek.

"Inoiz ezingo zara arrunta izan" (*Laba ibaiak*). Hori bilatu duzu musikan?

Beti saiatu naiz zerbait ezberdina egiten. Martzianoa sentitzen ote nintzen ere galdetu didate. Hala ere, gero ez dakit horren arraroa izan naizen. Kantaren zerbitzura geratzen saiatzen naiz beti.

"Hanka biak lokatzetan beherago ezin da eta, noan hemendik"(*Buelteri eusten*). Euskal eszena eta lokatzaren arteko alderaketa maiz erabili izan da. Nola ikusten duzu egoera?

Jende pila bat ari da lan ederra egiten eta badirudi inor ez dela enteratzen; eta aldiz, arrakasta dutenak askotan errepikatzen diren formulak dira. Gauza bera egiten duten talde inpertsonal eta plastifikatu asko dago, eta gauza autentiko oso gutxi topatu dut. Ekologia musikala beharko genuke.

Harri bat jaso eta 10.000 talde daude. Teknologia berrien ondorioa izan daiteke, errazagoa da diskoa ateratzea: bere alde on eta txarrekin. Baina kantitatea igotzeak ez du esan nahi kalitatea igotzen denik.

Josebak esaten zidan: musika asko egiten da, baina entzun gutxi. Eta igartzen da konposizioetan. Hori falta da, entzun zer pasatzen ari den. Bestela ez dut ulertzen dagoen egoera.

» "Nahiz eta 'emakume musikari' etiketa gorrotatu, oholtzan beti gara emakume eta eredu"

Lide Hernandok (Liher) behin esan zidan zu ikusi arte bera ez zela animatuko egiten duena egitera. Emakume erreferenteen eztabaida zaila den arren, beharrezkoa da.

Ah, bai e? Asko pozten naiz. Ni ere inspiratu naute Anarik, PJ Harveyk edo Alanis Morrisettek, adibidez, baina gizonezkoek ere bai. Nahiz eta "emakume musikari" etiketa gorrotatu, beti gara emakumeak eta eredu. Eta horrela da, erreferenteak egon behar dira.

Edonola ere, nesken taldeak programatu behar dira desabantailetatik errekuperatzeko bada ere. Mutilek eremu publikoa eta erreferentziena bereganatua dute. Emakumeak taularatzeko antolatzaileez gain, guk geuk aldatu behar dugu: ez hainbeste garrantzia eman esango dutenari. Esan dezatela nahi dutena.

"Zer erraustu behar da herria sortzeko?" (*Lehenago iristeko asmoz*).

Hainbat musikari daude, musikalak ez diren helburuekin. Horiek lehenik. Baina erraustu baino, babestu behar dugu badagoena. Sortzaile konprometitu asko dago, baita antolatzaile edo areto funtsezkoak, gaztetxeak kasu. Eta altxor hori guztia ondo zaindu behar dugu: bazterretan daude aberastasunak, eta arnasbideak dira. n

Östlund / Aronofsky / Lanthimos

Axolagabe uztea ez da zuzendari hauen kontua

Gustuko ditut, eta asko, inor epel uzten ez duten filmak. Gorrotatu ala maitatu bakarrik egin ditzakegunak eta tarteko uretan geratzea ezinezko egiten dutenak. Karta guztiak mahai gainean jarri eta onerako ala txarrerako ikuslearen kirioak dantzan jartzeko gai direnak. *The Tree of Life*, *2001 A Space Oddisey*, *Mullholand drive*, *Eraserhead*, *Pi*, *Holy motors*, *Inland empire* eta abar. Adibide asko aipa daitezke, baina urrutira joan gabe eta urtea amaitzen ari dela baliatuz, 2017an geratuko naiz. Cannes zinema jaialdian Urrezko Palmorria irabazi zuen *The Square*, Darren Aronofsky zuzendariaren *Mother!* eta Yorgos Lanthimos greziarraren *The Killing of a Sacred Deer* baitira horren adibide garbienak.

Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Lehena, Ruben Östlund zuzendari suediarraren film berria. Arte garaikideko museo bateko zuzendaria den Christianen istorioa kontatu du. Bere geruza sozialetik kanpo, bere mundutik at erlazionatzeko zailtasuna islatu nahi izan du zuzendariak. Alderdi sexual, familiar eta batez ere, besteen arazoen aurrean, diru apur batekin konpondu ezin daitekeen guzti horren aurrean. Baina isla hori era harrigarri eta ezohikoan eskaini du. Une deserosoz josia eta masailezurra erauzteko gai den sekuentziaz beteta dagoelako. Gizon-tximinoaren eszena, adibidez: aspaldi ez nuela horrelako une harrigarri bat areto batean bizitzen. Errealegia den amesgaizto moduko bat, humanismoak bere alde basatiari aurre egin behar diona.

Ez da erraza film honetara ohitzen jakitea eta are gutxiago libreki, mundu guztiari gomendatzea. Irakurtzen ari zareten %50ari, seguru asko, jasanezina irudituko zaizue, gustu txarreko broma bat, baina ez formagatik bakarrik. Film batean gutxitan ikusitako une deserosoak bizitzeaz gain, umore guzti horren azpian min ematen duen gizarte kritika bortitz bat aireratzen du. Eta horrek, agian, arbuioa sor dezake. Ume bat eta katutxo bat agertzen diren bideoarekin film barruan eragiten duen lurrikara adibidez, pantailatik kanpo ere atera daiteke, gaur egungo mundu-biral-kontrolaezin horren kritika basatia eginez. Alegia, istorio barruan salatzen dena, gure errealitatera estrapolatu daitekeela askoren kontzientzia astinduz.

The Square filmera ohitzea zaila bada, zer esanik ez *Mother!* ekoizpenera. Baso baten erdian, suak suntsitutako etxe zahar bat egokitzen igaroko ditu egunak Jennifer Lawrencek gorpuztutako pertsonaiak. Hura baino dezente zaharragoa den idazlea (Javier Bardem), aldiz, publikoaren arreta berreskuratzen lagunduko dion liburua idazten ariko da, azken aldian ezer gutxi sortzeko gai izan



'The Square' (goian), 'Mother!' (ezkerrean) eta 'The Killing of a Sacred Deer' (eskuinean) aurtengo hiru film bitxienetakoak izan dira.

bada ere. Abiapuntua hori izanik, muturrera eramandako proposamen erradikal hau zoragarria iruditu zait. Gorrotatu nahi, baina zeharo maitemindu nauena, anarkia pantailaz jabetu eta esperientzia zinematografiko harrigarria eskainiz.

Eta azkenik, lan berri bat estreinatzen duen bakoitzean polemika apur bat sortzen duen Yorgos Lanthimos zuzendariaren *The Killing of a Sacred Deer* thriller psikologikoa. Greziarrak estilo definitu bat izatea lortu du, eta batez ere unibertso aztoratzaile eta erradikal bat. Colin Farrell eta Nicole Kidman protagonista dituen istorio honetan, Aitzinako Greziako Euripides dramaturgoaren lanetan oinarritu da Steven eta Anna, bi medikuren eta beraien seme-alaben istorio *kubrickiar* hau kontatzeko.

» Batzuek gustu txarreko bromatzat hartuko dute segur aski film hauetakoren bat. Baina lortzen dute beste askok lortzen ez dutena: inor indiferente ez uztea

Azpi-geruza ugariz osaturiko ekoizpenak. Oso zaila, ezinezkoa, piztu dizkidaten sentsazio guztiak lerro hauen bidez igortzea. Ehunka une aipatuko nituzke, baina zentzua galdu eta erabat desegingo lirateke, guzti-guztiak pantailan ikusten ez badituzue. Erraietatik irtendako esperientzia bisual lotsagabe, zorrotz eta originalak iruditu zaizkit hiruak. Axolagabe uzteko gaitasuna duten erdibideko filmak ikustea baino, arriskatzera jokatzen duten horien aldeko apustua egiten baduzue, hartu boligrafoa eta koadernoa: *The Square*, *The Killing of a Sacred Deer* eta *Mother!* n

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

California bat guztiontzat

Amaia Alvarez Uria

Bihotz handiegia
EIDER RODRIGUEZ
Susa, 2017

Eider Rodriguezek oparitu digun azken ipuin bilduma sei narraziok osatzen dute eta seiok gonbidatzen gaituzte idazle honen unibertso partikularrean murgiltzera. Bertan protagonistek hurbil duten pertsona bati begira jarriko gaituzte, senar ohia, bizilaguna edo ama izan daitekeena, eta haiekiko dituen zilborreste edo harien kolore arreak bistaratu, haien buruarekiko harremana ere erakutsiz: "Zure ondoan distira egin zezan apaltzen zinen jendaurrean".

Emakumeak dira protagonista guztiak eta haien begietatik ikusiko ditugu inguratzen dituzten munduak. Kosmos txikiok gehienetan lau pareta izango dituzte, hortaz, etxe desberdinetan sartuko gara eta bertan ikuspegi argi eta maratza izango dugu edo giro itxia eta usain minak somatuko ditugu. Izan ere, zentzumenek, bereziki usaimenak, garrantzi handia izango dute narrazio hauetan emozioekin batera, egoera desberdinetan jasotako sentsazioekin inarrosi egingo direlako behin eta berriz pertsonaiak. "Bien arteko isiltasunen arteko talka entzuten zen hozkailua ixtean".

Arraroa eta berezia hitzak behin baino gehiagotan agertuko dira, baita haien definizioak ere, eguneroko agertoki hauetako ertz eta tolesek auzitan jarriko baitute errealitatea edo normaltasunaren pertzepzioa. Azkenik, eta aurrekoari lotuta, jende arteko desberdintasunak agerian utziko dituzte elkarrizketek eta narratzailearen iruzkinek, klase ertaineko emakumeen erradiografia bat eskainiz, haien kezka eta ezinegon batzuen agerpenaz: "Adin ertaineko andre kanonikoaren rola jokatu zenuen".

Eider Rodriguez Martin idazlea (Errenteria, 1977).

Laburbilduz, etxe kantoietako hatsa sentituko dugu orriotan. Carver edo Munroren ipuinetan bezala, etxe arrotzetan sartzen utziko digu Rodriguezek, pertsona arrunten bizitzak ezagutzeko eta haien "munstrokeriak" deskubritzeko. Etxe hauetako kantoietan gorputzak biluztuko dizkigu eta espazioak ñabartu zenbait muga desitxuratuz. Etxeotako kantoietako hatsa sentituko dugu azalean, arnas leuna izango dena batzuetan eta kirats fina besteetan, bizitzak dituen une deserosoak ekarriko dizkigu bakoitzaren gorputzaz eta bizimoduaz hausnarketa egin dezagun, inguruan duguna ez delako dirudien bezain oso, finko eta argi: "Denak beldurgarriki berdin jarraitzen du". n

» DISKOA

Dekadentzia dantzan jarrita

Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

Bitxia da euskal pop erradikala egiten duzula esatea. Baina aitortu behar da kontzeptuan erradikal samarrak direla, horrez gain, 80ko hamarkadaren –hemengo eta kanpokoaren– nostalgiko sutsuak direla –nahiz eta horien artean behingoz garaiko punk taldeak alboratu dituzten, eskerrak!– eta bestelako estiloetatik –gehienetan dantzagarrietatik– ere gogoz edan eta batzuetan hortik mozkortzen direla.

Zazkel 2012an sortu zen Bilbon. Oso argi zuten beste garai bateko talde euskaldunak omendu, euskaraz abestu eta musika dantzagarria egin nahi zutela. Erritmo kaxa baten laguntzarekin kantak idazteari ekin zioten eta 2016an *Zazkel* lan luzea autoekoiztu zuten. Sintetizadore eta teklatuen pisu handiarekin, euskaraz abestutako 10 pieza elektroniko, beltz eta batez ere *ochentero* erditu zituzten, dantzagarriak eta kitsch samarrak. Urte berean Banden Lehiako saria eskuratu eta horren bitartez disko hau kaleratu zuten.

Seikoteak lortzen duena emaitza oso freskoa da, irreberente samarra –onerako– eta dantzagarria, baina oraingoan –aurreko diskoaren kontrara– 80ko hamarkadako kantek duten nahita egindako kutsu *dekadente* horretan jausi gabekoa. Lan honetan hobeto ezkondu dituzte gustukoen dituzten eraginak. *Titaniozko sudurrak* hit!a da, kutsakorra: umoreak mozorrotzen du daraman kritika zorrotza eta sintetizadoreek gidatuta house erritmoek eta rapeatuek *in crescendo* garamatzate dantzara. *Eremu mortua* oso melodikoa eta barnerakoia da, ederra; gitarra eta baxu oso zainduekin



Ez entzun
ZAZKEL
Baga-Biga Produkzioak, 2017

80ko hamarkadako euskarazko pop taldeak eta post-punka ederki fusionatu dituzte. *Infernuko atean* Hertzainak-en piezaren errebisioa da, gitarreroago eta tarteka Azaharago. *Bazka ederra* beltza da erabat; funkya, eta baita goxoa eta poperoa. *Apirilak 5* pop-aren eta hard-rockaren arteko lehia, Su Ta Gar-en parekoa. *Ez entzun*-ek gure iraganeko belaunaldiaren gitarra gardenak ditu ikur eta pop-rock itsaskorra da, nahiz eta funkya lagun izan. *Afera ustela* jostagarria da, funkya, beroa eta M-ak-en izpiritua barreiatzen du, nahiz eta azkenean soul ospakizun bihurtu. Eta, diskoa ixteko, Kryzc doktoreak oparitutako remix techno-rapeatu-errezitatua. n

2012 urte aldean sei lagunek osatu zuten Zazkel taldea Bilbon.

"Sarean kateatuak" antzezlanaren emanaldi bat.

Peluka berdeak eta kresala

ANTZEZLAN LABURREN MARATOIA

Noiz: Abenduaren 9an. Non: Durangoko Azokako Szenatokia gunean.
Antzezlanak: *Sarean kateatuak* eta *Takoidun zapata gorria*.

Dabi Piedra

Durangoko Azoka kulturaren plaza bihurtu denetik, liburu eta disko berrienak erosteko lekua ez ezik, sortzaileen eta artisten erakusleiho paregabea da Landako gunea. Szenatokia ez dago Landakon bertan, kale artetik eta ibaia zeharkatuz iritsiko gara gune horretara, San Agustin kulturgunean. Arte eszenikoen eremua da eta, Azoka martxan egon den artean, makina bat antzezlan eskaini dute han, gehienak formatu laburrean.

Denak ezin ikusi, eta larunbat eguerdian saio bikoitza egitea erabaki dugu, mikroantzerkiari eskainitako maratoiak eman digun aukerari esker. Kontrastea dakarkio programazioak publikoari: Lehenengo, *Sarean kateatuak*, pieza bizkorra, erritmo bizikoa, koloretsua. Ondoren, *Takoidun zapata gorria*, antzezlan ilun eta malenkoniatsua.

2016an Poltsiko Antzerkiaren lehiaketako lehenengo saria irabazi zuenetik, hainbat formatutan eman dute *Sarean kateatuak*: 40 minutuko antzezlana izan zen hasieran, ordubetera luzatu zuten gero, orain interneteko websail ere bada –www.nomofobikak.eus webgunen ikusgai daude sei kapituluak–. Durangon, 20 minutuko pieza laburtua eskaini zuten Belen Cruz, Amaia Lizarralde eta Olatz Beobide aktoreek.

Ileorde berde deigarrien eta atrezzo xumearen laguntza baino ez zuten behar izan publikoari saio entretenigarria eskaintzeko. Erritmo bizian, esketx erako zenbait eszena taularatu zituzten, gaur gaurkoa den gaiaren inguruan: Sakelako telefonoaren menpe dago gizartea, uneoro konektatuta egoteko beharra du. Sakelakoari lotuta bizitzearen zentzugabekeria agerian uzten du antzezlanak.

Ondoren, iluntasunak hartu zuen San Agustingo oholtza. Pablo Ibarluzeak zuzendutako *Takoidun zapata gorria* lanak kostaldeko herri kresaltsu bateko taberna zulo ilunera eraman gintuen, hango hiru pertsonaiaren eguneroko errutina errepikakor eta esperantza gabekora. Narratzailearen ahots pausatuak protagonisten asmo zapuztuetan eta amets ezinezkoetan barrena bidea egin ahala, hiruren patuak elkarri lotzen joan zitzaizkion, pixkanaka.

Gidoi sendoa lagun, asko iradokitzen duten antzezlan horietakoa da *Takoidun zapata gorria*. Argiarekin, musikarekin eta gorputzen mugimenduekin sortutako atmosferak beste garai bateko kontakizunetara eraman gintuen, azalean kresala sumatzera iritsi ginen ia. Publikoak txintik ez zuen atera antzezlan osoan, baina amaieran txalo zaparradaz saritu zuen Mikel Ayllon, Jabi de la Ydalga, Haizea Paris eta Igor Arzuaga aktoreen lana. Euskal antzerkigintza oparoa eta askotarikoa dela erakutsi zigun Szenatokiko antzezlan laburren maratoiko lagin bikoitzak. n

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Amaia Agirrek 2012an Tolosan botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas I.*
Gaia: Hamasei urte eman dituzu futbolean jokatzen, eta gaur jokatu duzu lehen aldiz emakumeen euskal selekzioarekin. Partida bukatu da eta gaur hartuko duzu erretiroa.

Larraitz _____ Larra izenez
daramakit kamiseta
hamasei ____ botak jantzita
zelaira egin det buelta.
Gaur futbolaren hiriburua
_____ da Anoeta
berdintasuna gendun _____
ta ilusioa meka
herri txikiak ____ haundiak
biziarazten ditu eta.

Gaur Oruetak beatzigarren
minutuan ____ hitza
Eslovakiai irabaztea
genuen lehen _____.
Garaipen hori soilik ez degu
festa egiteko giltza
emakumeak arlo denetan
bidea egiten _____.
Poz txiki hauek ederragoa
_____ dute bizitza.

Ume-umetan mutil artean
baloiaren _____
hasi nintzen ta borrokan segi
degu _____ luzean.
Azken ostiko batzuk emanda
___ ametsen urratsean
emakumeak segi ____
familian nahiz klasean
inork ez baitu gugatik eingo
guk geuk _____ ezean.

Itzea Urkizu / Tolosaldeko Ataria

G	C	P	S	I	N	I	S	T	U	R	B	R	N	R
P	M	Z	R	T	D	L	C	B	M	B	I	A	A	R
P	O	F	B	N	A	U	Z	U	E	M	H	Z	Z	J
R	F	K	O	N	P	A	S	E	A	N	U	T	T	A
F	A	D	E	E	F	H	G	G	D	S	R	N	L	M
N	A	A	F	J	Z	U	H	I	D	T	T	I	I	E
N	N	R	H	U	M	G	G	T	Z	H	U	D	B	T
H	T	Z	O	C	L	U	G	E	M	I	J	L	A	S
M	A	P	I	B	H	L	I	N	N	F	Z	A	G	Z
L	S	R	B	L	N	P	A	S	H	F	T	B	L	D
E	N	V	T	S	F	E	F	S	S	H	V	D	L	T
P	U	D	N	U	O	P	D	D	T	S	Z	T	P	N
Z	F	N	P	C	E	I	G	F	A	Z	P	O	F	N
T	C	N	C	E	M	S	L	B	B	N	H	B	E	J
F	H	L	U	R	T	E	Z	P	H	G	A	R	D	C
N	V	T	M	B	F	U	R	U	B	L	E	H	P	I

Sudokuak

Erraza

	5	8		3	6	2		
1			2					
3	2		1	5		6		
9				1		7		4
		3				9		
2		1		6				3
		7		8	3		5	2
					1			7
		5	6	2		8	3	

Zaila

		5	9			3		4
	8			5		7	9	
					3			8
	1			7				6
		4				1		
6				3			2	
1			5					
	3	9		4			1	
5		2			7	8		

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1					■				
2								■	
3				■					
4							■		
5			■						
6						■			
7		■							
8					■				

Ezker-eskuin:
1. Gertatu. Anitz, ugari. 2. Diru asko duena.
3. Arreske. Xistera. 4. Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mendizerra. Handi samarrak diren jantzien taila adierazten duen zenbakia.
5. Lawrentzioaren ikurra. Neskak gurasoekiko.
6. Salgaien prezioa adierazteko erabiltzen den unitatea. Jardun, eragon. 7. Itaunketa.
8. Adore emateko hitza. Zerorrek.

Juan Emilio Prades Bel

Goitik behera:
1. Festibala. 2. Nazio, herri.
3. Txirringaren jarleku. Hilobietako idazkun. 4. Zakur. Bakoitzari lau.
5. Larruak. 6. Irten. Ezeztatzeko erabiltzen den hitza. 7. Kontsonante errepikatuta. Beisbol jokalari. 8. Txar bihurtu. 9. **Argazkian**.

Ebazpenak

Eskier-eskuin:
1. Jazo, Asko. 2. Abertats. 3. Iel, Zesto. 4. Arlatar. XI. 5. Lr, Alabak. 6. Dirua, Ari. 7. Inkesta. 8. Aupa, Zeuk.

Goitik behera:
1. Jaialdia. 2. Aberri. 3. Zela, RIP. 4. Oh, Launa. 5. Azalak. 6. Aleta, Ez. 7. Sss, Base. 8. Txartu 9. Odolkiak.

Erraza

7	5	8	9	3	6	2	4	1
1	6	4	2	7	8	3	9	5
3	2	9	1	5	4	6	7	8
9	8	6	3	1	5	7	2	4
5	7	3	8	4	2	9	1	6
2	4	1	7	6	9	5	8	3
6	9	7	4	8	3	1	5	2
8	3	2	5	9	1	4	6	7
4	1	5	6	2	7	8	3	9

Zaila

7	2	5	9	8	1	3	6	4
3	8	6	2	5	4	7	9	1
4	9	1	7	6	3	2	5	8
2	1	3	4	7	5	9	8	6
9	5	4	8	2	6	1	7	3
6	7	8	1	3	9	4	2	5
1	4	7	5	9	8	6	3	2
8	3	9	6	4	2	5	1	7
5	6	2	3	1	7	8	4	9

Larraitz **nauzue** Larra izenez/daramakit kamiseta/hamasei **urtez** botak jantzita/zelaira egin det buelta./Gaur futbolaren hiriburua/ **bihurtu** da Anoeta/berdintasuna gendun **helburu**/ta ilusioa meka/herri txikiak **ametsez** haundiak/biziarazten ditu eta./Gaur Oruetak beatzigarren/minutuan **hartu** hitza/Eslovakiai irabaztea/ genuen lehen **baldintza**./Garaipen hori soilik ez degu/festa egiteko giltza/emakumeak arlo denetan/bidea egiten **gabiltza**./Poz txiki hauek ederragoa/**egiten** dute bizitza./Ume-umetan mutil artean/ baloiaren **konpasean**/hasi nintzen ta borrokan segi/degu **denbora** luzean./Azken ostiko batzuk emanda/**nere** ametsen urratsean/ emakumeak segi **laneanf**/familian nahiz klasean/inork ez baitu gugatik eingo/guk geuk **sinistu** ezean.



Ruth Lazkoz. Unibertsoaren alde iluna aztertzen

Zientzia du ogibidea Ruth Lazkozek (Bilbo, 1971), baina nekez ikusiko duzu bata zuria jantzita laborategi batean. EHUko Fisika Teoriko saileko kidea da, eta arbela eta kalkulu-prozesadoreak ditu eguneroko lanabes. Oraintxe esku artean duen egitekoa sinple azaltzen da: Einsteinen ekuazioak berridazten ari da, hortik aterako den eredu berriarekin energia iluna ondo ezkontzen ote den ikusteko. Lasai, guk ere ez dugu ulertu.

"Zerbait ez ulertzea da zientzia egiteko behar den lehenbiziko gauza"

Unai Brea
@unaibrea
ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

Duela mende bat jakin genuen unibertsoa etengabe hedatzen ari dela, eta 90eko hamarkadan ohartu ginen hedatze hori, gainera, gero eta azkarragoa dela, gure ereduek besterik esan arren. Horren erantzuleari energia ilun deitu diogu, baina ez dakigu zer ote den. Alegia, gure teoriaren hutsunea betetzeko asmatu dugun kontzeptu bat besterik ez da oraingoz. Ondo hasi naiz?

Oro har bai. Energia iluna, edo konstante kosmologikoa –horrela ere esaten zaio– kontzeptu sinplea da matematikoki, baina oso-oso berezia. Oso balio txikia du, espero genuena baino askoz txikiagoa, eta horren arrazoia jakin behar dugu. Baina kosmos hurbiletik datozkigun datuei begiratu –guk hemen supernobetakoak aztertzen ditugu, esaterako– eta balio batzuk lortzen dira, eta unibertsoko beste eremu batzuetan, berriz, beste batzuk.

Eta berdinak izan beharko lirateke?

Jakina! Fisika bakarra dago, unibertso bakarra dago eta. Arazoa da borroka hori, nolabait deitzearren, lotuta dagoela konstante kosmologiko bat existitzen dela suposatzearekin. Agian eredu teoriko malguago bat bagenu, aurreikuspenak hurbilago egongo lirateke gero behatzen ditugun datuetatik.

Kontua da energia ilun izeneko zerbait egon behar dela erabaki zenetik urteak daramatzazuela fisikariek lanean, hartaz ezer gutxi argitu gabe.

Hala da, bai. Energia iluna oso iluna da, eta ez da ezer aurreratu, edo behintzat, ez da behar beste aurreratu fisika gogorraren ikuspegitik.

Stephen Hawkingen azken liburua, *The grand design* (Diseinu handia, 2010), "filosofia hil egin da" esanez hasten da...

Ez nator esaldi horrekin bat.

Liburu horretan Hawkingek dio ez dugula jainkorik behar unibertsoaren sorrera azaltzeko, grabitatea dela Big Bang-aren zergatia. Baina maila horretara iritsita, ez da zilegi pentsatzea grabitatea jainkoaren, edo orokorrago esanda, dibinitatearen beste izen bat baino ez dela?

Fisika eta elitismoa

"Gaur egun ez dago duela mende batekoak bezain fisikari ospetsurik (Einstein, Bohr, Schrödinger...), Stephen Hawking izan ezik agian. Esaten da hamarkadak daramatzagula fisikan aurrerapauso handirik egin gabe, baina orain gutxi egin da grabitate-uhinen aurkikuntza, eta hori arrakasta handia izan da. Uste dut fisikaren aro hau datuen aroa modura gogoratuko dela zientziaren historian; ezagutza asko zabaldu da eta jada ez da hain kontu elitista. Lehen fisikari gutxiago zegoen, eta alde handiagoa zegoen nabarmentzen zirenen eta gainerakoen artean".

Zientzialarien lana ebaluatzeko sistemaz kexu da Lazkoz: "Ez da azpimarratzen zertan nabarmentzen garen, baizik eta zertan egiten dugun kale. Mundu akademikoan egunero gertatzen da hori".

Baina Jaungoikoa filosofiaren oso alde murritza da. Deseroso sentiarazten dizuten gauzak baztertu nahi badituzu, ezin zara fisikaria izan. Erosoago bazaude jainko bat dagoela pentsatuz, ezerk ez zaitu bultzatuko gehiago ikastera. "Hemen Jaungoikoa dago, ez segi harago begiratzen, hortik aurrerakoa ezkutuan dago eta sekretua da". Jaungoiko bat sartzen duzun unetik, akabo zientzia. Eta berdin dit jainko hori bizardun gizon baten irudia duen izate bat den edo beste zerbait.

Hala ere –barka tematzea–, orduan nola jokatu behar da, konparazio baterako, zientziak berak bere eremutik kanpo dagoela onartu duen singularitate delakoarekiko, hau da, Big Bangaren aurreko unearekiko?

Apaltasunez. Ez dugu ulertzen; bada, ados. Zerbait ez ulertzea da zientzia egiteko behar den lehenbiziko gauza.

Edozein kasutan, kosmologian lan egiteak ez zaitu etengabe eramaten guztiok buruan ditugun galdera existentzial potoloetara? Potoloena, hauxe: "Zergatik dago 'zerbait', eta ez 'ezer ez'"?

Ez, ni praktikoagoa naiz. Fakultate honetako fisikariok behintzat ez gara ibiltzen horri bueltaka, Big Bangaren aurretik zer ote zegoen eta abar. Egia da fisikari arrunt baten bizimoduan laneko kontuak etengabe buruan jiraka daudela; afaria egiten ari naizela teleskopiotik iritsitako azken datuez gogoratu eta lankide bati deitzen diot horri buruzko ideiaren bat aipatzeko. Baina ez gaude bereziki tematuta gaiaren alderdi existentzialarekin.

Lehentxoago aipatu dugun energia iluna omen da unibertsoaren materia-energia osoaren %70 inguru.

Bai, eta %25 materia iluna da. Ezagutzen dugun materia %4 besterik ez da.

Energia iluna ez ezik, materia iluna ere bada beraz. Hori zer da?

Inork ez daki. Baina badaude hautagai teorikoak, guk hemen egin izan dugu eredu batzuekin lan. Oso partikula ahulak izan behar dira, arraroak. Eredu matematikoa eraiki dezakezu, haien portatera nolakoa izango den aurreikusi... Arazoa da oraindik ez direla inoiz detektatu. Dena den ez naiz horretan aditua, ez baita nire lan arloa.

Honek guztiak gogora ekartzen dit Leonard Susskind fisikari handiaren esaldi bat, maila bertsuan jartzen dituena gaurko zientzia eta unibertsoaren enigmez lehen galderak egiten hasi ziren leizeetako gizakiak.

Guztiz ados nago.

Amaitzeko: zuen egunerokoa ez da zientzia hutsa bakarrik. Finantzazioa lortzea, proiektuak aurrera ateratzea... eta etengabe, aldiro, aldizkari espezializatuetan zerbait argitaratu beharra.

Iruditzen zait arazo larriena gure lanaren ebaluazio sistemak direla. Norbaitek artikulu asko argitaratzen ditu aldizkarietan? Bada, ikus dezagun zertan egiten duen huts, ez zer egin duen ondo; ez da azpimarratzen zertan nabarmentzen garen, baizik eta zertan egiten dugun kale. Mundu akademikoan egunero gertatzen da hori. n



155a erretiratu eta katalanei ondo bozkatzeko ikastaroa antolatu nahi du Espainiako Gobernuak

Kataluniako politika normalizatzearen kontu hori nahi bezala atera ez zaiola eta, 155. artikulua paperontzira bota eta heziketaren bidetik joatea erabaki du Mariano Rajoyk. Hartara, Beranduegik jakin duenez laster jarriko da martxan adinez gorako katalan guztiei zuzendutako ikastaroa, hauteskundeetan aukera egokiei nola bozkatu irakatsiko diena.

"Errepresioaren bidea okerrekoa dela konturatu gara, askoz hobea da heziketa", esan digu Moncloako iturri batek, "horregatik eskainiko diegu noraezean ari diren katalan gizajo horiei beren bizitzetara behingoz argia –astekaria ez, bestea– ekarriko duen ikastaroa". Zehaztu dutenez, noraezean ari ez direnek ez dute derrigorrez eskoletara arrimatu beharko, besteek bai. "Podemosekoak zer multzotan sartu aztertzen ari gara oraindik, ez da erraza", Espainiako Gobernuko Pedagogia Saileko teknikarien esanetan.

Inor kexa ez dadin, metodo baketsuak lehenetsiko dituzte ikastaroan, argitu dutenez: "Arkatza beste armarik ez da onartuko geletan; eta norbait erratuz gero, ba borra-gomaz zuzendu eta kito", azaldu dute. Lasaiago joan gara lotara.

SAREAN ARRANTZATUA

Albiolek erabaki zail bat hartu behar du bunkerrean

Arrimadas presidentea ez dela izango jakin berritan



Ziklista profesionalek tandema osatuko dute medikuarekin

Jon Kianas txirrindularia eta Epoz Lepo fundazioko mediku Juanpi Lula aurkezpenean.

Asmadun atleta gehien dituen kirolak asmatu du modua ziklista oro baldintza berean-edo lehiatzeko: ziklista eta gamelua medikua batera aritzea, baita bizikleta gainean ere.

Froomek eman duen positiboak tramiteak azeleratu ditu eta denboraldi honetan jarriko da indarrean: txirrindulariak ez dira gehiago banakako bizikletetan joango, tandemetan baizik, eurak aurrean, eta bakoitzaren medikua atzean. "Lehiaren gozoa dastatu nahi dugu guk ere", azaldu digu Epoz Lepo mediku-fundazioko kide Xabin Parrillak: "Podiumera igotzea merezi dugu, ziklistek eurek baino gehiago ziurrenik, gure lana oso esker txarrekoa da eta guk ere (animo) *txute* bat merezi dugu".

DENBORA IRABAZTEARREN, EZ GALDU DENA.

BADUGU ARRISKUEN BERRI.
ARDURATSUAK IZAN GAITEZEN.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

ERAKUSKETA
SAN TELMO MUSEOA

ESPAZIOAREN BARREA (GUERNICA)

2017-11-25
2018-2-25

La risa del espacio II

JOSÉ RAMÓN AMONDARAIN

San Telmo Museoa
Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia / San Sebastián
T. 943 481 580 | @santelmomuseoa | #STMGernika
www.santelmomuseoa.eus

ANTOLATZAILEAK / ORGANIZAN

STM San Telmo Museoa | donostia kultura | DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | Artium araba álava

ERAKUNDE BABESLEAK / SOCIOS INSTITUCIONALES

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco | Gipuzkoako Foru Aldundia | Donostia Kultura

PATRONO PRIBATUAK / PATRONOS PRIVADOS

eitb | EL DIARIO VASCO | kutxa